

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOEN FINANTZA EGOERAREN ANALISIA 2008-2013 DENBORALDIAN**

---

## **Gradu Amaierako Lana**

Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Egilea: **Amaia Alonso Goikoetxea**

Zuzendaria: **Agustin Erkizia Olaizola**

Lana burutze urtea: 2015

Defentsa burutze urtea: 2015

## AURKIBIDEA

<b>TAULEN AURKIBIDEA.....</b>	<b>4</b>
<b>GRAFIKOEN AURKIBIDEA.....</b>	<b>5</b>
<b>IRUDIEN AURKIBIDEA.....</b>	<b>6</b>
<b>AKRONIMOEN GLOSARIOA .....</b>	<b>6</b>
<b>1 SARRERA .....</b>	<b>7</b>
1.1 Lanaren egitura eta metodologia .....	7
1.2 Lurralde historikoak .....	8
1.3 Eranskinen azalpenak.....	11
<b>2 ARTIKULUAK.....</b>	<b>11</b>
2.1 Artikulua 1. Europako eskualdeen aberastasuna .....	11
2.2 Artikulua 2. Espainiako probintzien arriskua krisiaren aurrean .....	12
<b>3 BARNE PRODUKTU GORDINA.....</b>	<b>14</b>
3.1 BPG biztanleko.....	14
3.2 BPGren hazkundera 2008-2013 epean .....	17
<b>4 AURREZKI GORDINA.....</b>	<b>17</b>
4.1 Definizioa.....	17
4.2 Kalkuluak .....	18
4.3 Aurrezki Gordina Balio Erlatiboan .....	18
4.4 Aurrezki gordina biztanleko .....	21
4.5 Aurrezki gordinaren hazkundera 2008-2013 epean .....	23
4.6 Sarrera arrunt eta gastu arrunt ez finantzarioen hazk. 2008-2013 epean .....	24
4.7 Euskadiren kasua .....	27
<b>5 AURREZKI GARBIA.....</b>	<b>28</b>
5.1 Definizioa.....	28
5.2 Kalkuluak .....	28
5.3 Aurrezki garbia balio erlatiboan .....	28
5.4 Aurrezki garbia biztanleko.....	30
5.5 Aurrezki garbiaren hazkundera 2008-2013 epean .....	32
5.6 Zama finantzarioaren hazkundera 2008-2013 epean.....	33
5.7 Euskadiren kasua .....	34
<b>6 LEGEZKO ZORPETZE-MAILA.....</b>	<b>35</b>
6.1 Definizioa.....	35
6.2 Kalkuluak .....	35

6.3	Legezko zorpetze-maila.....	35
6.4	Euskadiren kasua .....	37
<b>7</b>	<b>ZORPETZE-MUGA .....</b>	<b>38</b>
7.1	Definizioa.....	38
7.2	Kalkuluak .....	38
7.3	Zorpetze-muga .....	38
7.4	Euskadiren kasua .....	40
<b>8</b>	<b>ZOR BIZIA .....</b>	<b>40</b>
8.1	Definizioa.....	40
8.2	Kalkuluak .....	41
8.3	Zor bizia balio erlatiboan.....	41
8.4	Zor bizia biztanleko .....	43
8.4.1	Zor biziak biztanleko izandako hazkundera 2008-2013 epean .....	45
8.5	Zor biziaren hazkundera 2008-2013 epean.....	46
8.6	Euskadiren kasua .....	46
<b>9</b>	<b>FUNTZIONAMENDU GASTUAK .....</b>	<b>47</b>
9.1	Definizioa.....	47
9.2	Kalkuluak .....	47
9.3	Funtzionamendu gastuak balio erlatiboan .....	48
9.4	Funtzionamendu gastuak biztanleko.....	50
9.5	Funtzionamendu gastuen hazkundera 2008-2013 epean.....	52
9.6	Euskadiren kasua .....	53
<b>10</b>	<b>INBERTSIO GARBIAK .....</b>	<b>53</b>
10.1	Definizioa.....	53
10.2	Kalkuluak .....	53
10.3	Inbertsio garbiak biztanleko .....	54
<b>11</b>	<b>INBERTSIO-MAILA.....</b>	<b>55</b>
11.1	Definizioa.....	55
11.2	Kalkuluak .....	56
11.3	Inbertsio-maila.....	56
11.4	Inbertsio garbien hazkundera 2008-2013 epean.....	58
<b>12</b>	<b>PRESIO FISKALA .....</b>	<b>59</b>
12.1	Definizioa.....	59
12.2	Kalkuluak .....	60

12.3	Sarrera tributarioak biztanleko .....	60
12.4	Sarrera tributarioen hazkundera 2008-2013 epean .....	62
12.5	Euskadiren kasua .....	63
<b>13</b>	<b>SARRERA ETA GASTU TOTALEN BILAKAERA.....</b>	<b>64</b>
<b>14</b>	<b>GOBERNUAK ONARTUTAKO LEGEA .....</b>	<b>66</b>
<b>15</b>	<b>ONDORIOAK .....</b>	<b>67</b>
15.1	Aurrezki garbia.....	68
15.2	Zor bizia .....	69
15.3	Funtzionamendu gastuak.....	70
15.4	Inbertsioak.....	70
15.5	Inbertsio-maila.....	71
15.6	Presio fiskala .....	71
	<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>73</b>
	<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>75</b>

## TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua .....	9
2. Taula. Transferentzia arruntak sarrera arruntekiko duten portzentajea .....	9
3. Taula. 2012an Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzari eginiko ekarpenak .....	10
4. Taula. 2013an Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari eginiko ekarpenak .....	10
5. Taula. Barne Produktu Gordina biztanleko (€) .....	14
6. Taula. BPGren hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	17
7. Taula. Aurrezki gordina balio erlatiboan .....	18
8. Taula. Aurrezki gordina biztanleko (€) .....	21
9. Taula. Aurrezki gordinaren hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	23
10. Taula. Sarrera arrunten hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	25
11. Taula. Gastu arrunt ez finantzarioen hazkundera 2008-2013 epean (%).....	25
12. Taula. Aurrezki gordina balio erlatiboan -Euskadi- .....	27
13. Taula. Aurrezki gordina biztanleko (€) -Euskadi- .....	27
14. Taula. Aurrezki garbia balio erlatiboan .....	28
15. Taula. Aurrezki garbia biztanleko (€).....	30
16. Taula. Aurrezki garbiaren hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	32
17. Taula. Zama finantzarioaren hazkundera 2008-2013 epean (%).....	33
18. Taula. Aurrezki garbia balio erlatiboan -Euskadi- .....	34
19. Taula. Aurrezki garbia biztanleko (€) -Euskadi- .....	34
20. Taula. Legezko zorpetze-maila.....	36
21. Taula. Legezko zorpetze-maila -Euskadi- .....	37
22. Taula. Zorpetze-muga.....	38
23. Taula. Zorpetze-muga -Euskadi- .....	40
24. Taula. Zor bizia balio erlatiboan.....	41
25. Taula. Zor bizia biztanleko (€) .....	43
26. Taula. Zor biziak biztanleko izandako hazkundera 2008-2013 epean (%).....	45
27. Taula. Zor biziaren hazkundera 2008-2013 epean (%).....	46
28. Taula. Zor bizia balio erlatiboan -Euskadi-.....	47
29. Taula. Funtzionamendu gastuak balio erlatiboan .....	48
30. Taula. Funtzionamendu gastuak biztanleko (€).....	50
31. Taula. Funtzionamendu gastuen hazkundera 2008-2013 epean (%).....	52
32. Taula. Funtzionamendu gastuak balio erlatiboan -Euskadi- .....	53
33. Taula. Inbertsio Garbiak biztanleko (€) .....	54

34. Taula. Inbertsio-maila.....	56
35. Taula. Inbertsio garbien hazkundera 2008-2013 epean (%).....	58
36. Taula. Sarrera tributararioak biztanleko (€) .....	60
37. Taula. Sarrera tributararioen hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	62
38. Taula.Sarrera tributararioak biztanleko (€) -Euskadi- .....	63
39. Taula. Autonomia Erkidegoen sarrerren hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	64
40. Taula. Autonomia Erkidegoen gastuen hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	65
41. Taula. Sarrera eta gastuen hazkundera 2008-2013 epean (%).....	66
42. Taula. Administrazio publikoen zor publikoa BPGrekiko (milioi €).....	68
43. Taula. Adierazle finantzarioen 2013ko balioa autonomia erkidego bakoitzean .....	

### **GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

1. Grafikoa. Barne Produktu Gordina biztanleko (€) .....	15
2. Grafikoa. BPGren hazkundera 2008-2013 epean (%).....	17
3. Grafikoa. Aurrezki gordina balio erlatiboan .....	19
4. Grafikoa. Aurrezki gordina biztanleko (€) .....	21
5. Grafikoa. Aurrezki gordinaren hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	23
6. Grafikoa. Sarrera arrunten hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	25
7. Grafikoa. Gastu arrunt ez finantzarioen hazkundera 2008-2013 epean (%).....	25
8. Grafikoa. Aurrezki garbia balio erlatiboan .....	29
9. Grafikoa. Aurrezki garbia biztanleko (€).....	31
10. Grafikoa. Aurrezki garbiaren hazkundera 2008-2013 epean.....	32
11. Grafikoa. Zama finantzarioaren hazkundera 2008-2013 epean .....	33
12. Grafikoa. Legezko zorpetze-maila.....	36
13. Grafikoa. Zorpetze-muga.....	39
14. Grafikoa. Zor bizia balio erlatiboan.....	42
15. Grafikoa. Zor bizia biztanleko (€) .....	44
16. Grafikoa. Zor biziak biztanleko izandako hazkundera 2008-2013 epean (%).....	45
17. Grafikoa. Zor biziaren hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	46
18. Grafikoa. Funtzionamendu gastuak balio erlatiboan.....	48
19. Grafikoa. Funtzionamendu gastuak biztanleko (€) .....	51
20. Grafikoa. Funtzionamendu gastuen hazkundera 2008-2013 epean (%).....	52
21. Grafikoa. Inbertsio Garbiak biztanleko (€) .....	54
22. Grafikoa. Inbertsio-maila .....	57

23. Grafikoa. Inbertsio garbier hazkundera 2008-2013 epean (%).....	58
24. Grafikoa. Sarrera tributariorak biztanleko (€).....	61
25. Grafikoa. Sarrera tributariorien hazkundera 2008-2013 epean (%) .....	62
26. Grafikoa. Administrazio publikoen zor publikoa BPGrekiko (milioi €).....	64

## **IRUDIEN AURKIBIDEA**

1. Irudia. Espainiako probintzien arrisku-maila krisiaren aurrean .....	13
2. Irudia. Espainiako herrien arrisku-maila krisiaren aurrean .....	13

## **AKRONIMOEN GLOSARIOA**

**MINHAP:** Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas. (Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa)

**INE:** Instituto Nacional de Estadística

**BDE:** Banco de España (Espainiako Bankua)

**BPG:** Barne Produktu Gordina

**PFEZ:** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

## 1 SARRERA

Izenburuak dioten bezala, Espainiako Autonomia Erkidegoen egoera finantzarioa aztertu dut 2008-2013 denboraldian. Garai honetan, mundu mailako krisi larri batean murgildurik gaude, enpresa asko eta asko porrot egoeran daude, familia askoren diru sarrerak ikaragarri murriztu dira etab. Hau horrela izanik, lanaren helburua, Espainiako Autonomia Erkidegoen gaur egungo finantza egoera zein den eta krisiak autonomia erkidego bakoitzean zer nolako eragin ekonomiko finantzarioa izan duen aztertzea da. Gradu amaierako lana burutzeko gai hau aukeratu dut, alde batetik, gaur egun aurkitzen garen egoera larri honi buelta emateko soluzioak bilatzen hasi aurretik, zehazki zein den gure egoera eta zein puntutan aurkitzen garen jakitea guztiz beharrezkoa delako. Beste alde batetik, gainera, nire ikasketetan hainbat alditan jardun dugu adierazle finantzario ezberdinen inguruan eta gustuko dudako gai bat denez, lan honen bitartez, ikasketen bidez eskuraturiko ezagutza teoriko eta praktikoak aplikatu eta nire jakituria sakontzea dut helburu.

### 1.1 Lanaren egitura eta metodologia

Lehendabizi, sarreraren bertan, lurralde historikoen (Nafarroa eta Euskadi) inguruko hainbat azalpen eman ditut. Euskadiren kasuan, bi aurrekontu likidatu ezberdinekin egin dut lan: bata Eusko Jaurlaritzarena eta bestea Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundien datuak batzen dituen, eta horren zergatia azalduko dut. Sarreraren amaieran, eranskinen antolaketa dago adierazita.

Jarraian, Espainiako Autonomia Erkidegoen egoera aztertzeko, interesgarriak iruditu zaizkidan eta Espainiako Autonomia Erkidegoen egoera nolakoa den islatzeko baliagarriak diren "El País" egunkarian argitaratutako pare bat artikulu komentatu ditut.

Ondoren, autonomia erkidegoen azterketan zentratu naiz eta hau burutzeko informazioa, batik bat, iturri ofizialetatik lortu dut; erabili ditudan iturri nagusiak ondorengoak dira: Banco de España, EUSTAT, MINHAP, INE eta Gipuzkoako Foru Aldundia (Udalgida). Iturri horietatik informazio ezberdina eskuratu dut, besteak beste, autonomia erkidegoetako BPG, zor bizia, aurrekontu likidatuak etab. eta lorturiko datu horiekin, kalkulu ezberdinak burutu ditut. Hasteko, autonomia erkidego bakoitzeko urte ezberdinetako Barne Produktu Gordinaren inguruko hainbat kalkulu eta komentario egin ditut. Jarraian, autonomia erkidegoetako urte bakoitzeko aurrekontu likidatuak eta beste hainbat informazio hartu eta adierazle finantzario ezberdinak kalkulatu ditut, gero autonomia erkidegoak elkarren artean konparatu ahal izateko; adierazle horiek ondorengoak dira: Aurrezki gordina, aurrezki garbia, legezko zorpetze-maila, zorpetze-muga, zor bizia, funtzionamendu gastuak, inbertsio garbiak eta presio fiskala. Horiek, era berean, sarrera arruntekin, biztanleriarekin etab. erlazionatu ditut eta euren osagaiak ere aztertu egin ditut. Honekin jarraituz, autonomi erkidego bakoitzeko sarrera eta gastu totalen bilakaera ere aztertu dut, 2008-2013 denboraldian zer gertatu den ikusteko. Hau guztia eginik, lan honen helburu nagusia lortu dut, Espainiako Autonomia Erkidegoen egoera finantzarioa aztertzea 2008-2013 denboraldian, alegia. Aztertu dudako azken urtea 2013a izan da, izan ere, iturri ofizialetan argitaratuak dauden azken aurrekontu likidatuak 2013. urtekoak dira eta esan beharra dago, 2013koak ere ez direla behin betikoak, aurrekontu likidatuaren aurrerapenak baizik.



Adierazle bakoitzari dagokionez, autonomia erkidego guztietako emaitzak taula eta grafiko batean laburbildu ditut eta horiek dokumentu idatzi honetan erantsirik daude. Aipatu dudan bezala, Euskadiren kasuan, printzipioz, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua oinarritzat hartuz egin dut azterketa baina hainbat adierazleetan, Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontua oinarritzat hartuz lortutako emaitzak ere komentatu ditut eta horiek ere dokumentu honetan daude erantsirik.

Amaitzen joateko, nire gaiari loturik dagoen gobernuak onarturiko lege bat aipatu dut eta azkenik, ondorioetan, Espainiako Autonomia Erkidegoen egoera laburbildu eta hainbat kasu azpimarragarri aipatu ditut.

## 1.2 Lurralde historikoak

Jakina den bezala, Euskadi eta Nafarroaren kasuak, Espainiako beste Autonomia Erkidegoekin alderatuz ezberdinak dira. Konstituzioan ezarrita dagoen bezala, Euskadi eta Nafarroa lurralde historikoak dira eta hori dela eta, Foru Arauetan ezarririk dauden hainbat eskubide dituzte. Foru Erregimenaren arabera, Euskadi eta Nafarroak euren zerga sistema ezartzeko, mantentzeko eta arautzeko eskubidea daukate. Horrek esan nahi du, Euskadiko hiru probintziak eta Nafarroa, nor bere zerga gehienen ordain-arazpenaz, kudeaketaz, likidazioaz, bilketaz, eta ikuskapenaz arduratzen direla. Esan bezala, beraz, bi autonomia erkidego hauetan, zerga gehienen bilketa euren esku egongo da eta aldi berean, autonomia erkidego hauek, Estatuko gastu orokorrak finantzatzen laguntzen dute, "kupoa" deituriko diru kantitate bat Estatuari emanaz.

Euskadiren kasua hala ere zertxobait ezberdina da, izan ere, Euskadin Eusko Jaurlaritza dago eta aldi berean, probintzia bakoitzean Foru Aldundi bat dago, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban, alegia. Zergen bilketaz, funtsean, hiru Foru Aldundiak arduratzen dira eta gero Eusko Jaurlaritzari dagozkien ekarpenak egiten dizkiete.

Euskadiren kasuarekin jarraituz, nik Eusko Jaurlaritzaren egoera aztertuko dut batik bat. Hasteko, jarraian erantsi dudan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuko sarrera likidatuen inguruan hainbat aipamen egitea gustatuko litzaidake.

1. Taula. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua

URTEA	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
<b>SARRERA LIKIDATUAK</b>						
1. Zuzeneko zergak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Zeharkako zergak	5.555,33	4.641,24	4.274,47	3.009,84	2.476,50	6.079,10
3. Tasak eta bestelako sarrerak	158.581,67	173.503,38	192.743,35	213.440,27	201.607,04	214.384,00
4. Transferentzia arruntak	8.006.948,38	7.182.526,20	8.091.728,37	8.025.154,47	8.424.114,69	7.865.912,08
5. Ondarezko sarrerak	180.086,80	48.989,62	83.909,44	197.314,46	165.198,29	48.033,60
Sarrera arruntak	8.351.172,18	7.409.660,44	8.372.655,63	8.438.919,04	8.793.396,52	8.134.408,78
6. Inb. errealak besterenganatz.	8.803,18	387,58	713,44	1.064,44	71.952,48	15,95
7. Kapital tranferentziak	75.880,26	93.420,43	196.146,30	272.617,35	371.590,10	397.713,11
Kapital sarrerak	84.683,44	93.808,01	196.859,74	273.681,79	443.542,58	397.729,06
Sarrera ez finantzarioak	8.435.855,62	7.503.468,45	8.569.515,37	8.712.600,83	9.236.939,10	8.532.137,84
8. Finantza aktiboak	48.158,83	20.518,50	17.576,41	49.151,18	48.830,72	63.637,49
9. Finantza pasiboak	200.000,00	1.411.000,00	1.893.000,00	960.077,44	1.084.420,36	1.175.253,14
Sarrera finantzarioak	248.158,83	1.431.518,50	1.910.576,41	1.009.228,62	1.133.251,08	1.238.890,63
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>8.684.014,45</b>	<b>8.934.986,95</b>	<b>10.480.091,78</b>	<b>9.721.829,43</b>	<b>10.370.190,18</b>	<b>9.771.028,47</b>

Iturria: MINHAPetik harturiko taula.

2. Taula. Transferentzia arruntak sarrera arruntekiko duten portzentajea.

Transf. Arruntak / Sarrerak (%)	92%	80%	77%	83%	81%	81%
---------------------------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Ikus daitekeen bezala, Euskadiren kasuan ez dago zuzeneko zergarik; izan ere, aurrez esan bezala, zuzeneko zergak (PFEZ, sozietateen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga etab.) biltzeaz ez da Eusko Jaurlaritza arduratzen, Foru Aldundiak baizik.

Era berean, sarreraren kantitate oso handi bat transferentzia arruntetik datozela ikus daiteke. Zehazki, 2008an, transferentzia arruntak sarreraren %92a dira; 2009an %80a, 2010ean %77a, 2011an %83a, 2012an %81a eta, azkenik, %81a baita ere 2013an. Alegia, esan bezala, transferentzia arruntak sarreraren kantitate handi bat suposatzen dute.

Honi dagokionez, garrantzitsua da baita ere, Foru Aldundiek zer nolako ekarpenak egin dizkieten Eusko Jaurlaritzari ezagutzea. Horrela, aztertzen ari naizen azken bi urteetako datuak hartuko ditut honen inguruko ideia bat egiteko.

3. Taula. 2012an Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari eginiko ekarpenak

<b>2012ko EKARPENAK</b>	<b>LIKIDAZIOA</b>
Ekarpen orokorra	7.447.836,68
Ertzaintza	21.113,72
Abalak	0
Osasun ezohiko gastuen finantzazioa	2.994,88
Hezkuntza Lege organikoa	20.110,27
SAAD hitzartutako maila	-1,03
Ikerketa, zientzi garapena eta berrikuntza	428.078,00
<b>EKARPENAK</b>	<b>7.920.132,52</b>
Iturria: Norberak egin Udalgidako datuetan oinarrituta.	

2012an transferentzia arruntak 8.424.114,69€-takoak dira eta taula horren arabera, horietatik 7.920.132,52€ Foru Aldundietatik datoz. Alegia, Eusko Jaurlaritzak 2012an dituen transferentzia arruntan %84a hiru Foru Aldundiek eginiko ekarpenak dira; eta esan bezala, transferentzia arruntak sarreraren %81a dira urte horretan. Beraz, hemen argi ikusten da Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundien menpekotasun ikaragarria duela finantza arloan.

2013ko datuak aztertzean ere ondorioz berdinetara iristen garela ikusiko dugu.

4. Taula. 2013an Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari eginiko ekarpenak

<b>2013ko EKARPENAK</b>	<b>AURREKONTUA</b>	<b>LIKIDAZIOA</b>
Ekarpen orokorra	7.492.189,32	7.428.007,77
Ertzaintza	30.529,45	31.356,92
Abalak	0	10243,15
Osasun ezohiko gastuen finantzazioa	0,00	1.331,28
Hezkuntza Lege organikoa	9.074,05	1.431,76
SAAD hitzartutako maila	0,00	0,00
Ikerketa, Zientzi garapena eta berrikuntza	283.902,87	348.562,20
<b>EKARPENAK</b>	<b>7.815.695,69</b>	<b>7.820.933,08</b>
Iturria: Norberak egin Udalgidako datuetan oinarrituta.		

2013ko transferentzia arruntak 7.865.912,08€ dira eta horietatik 7.820.933,08€ hiru Foru Aldundietatik datozela adierazten du taula honek, %99,4a, alegia. Lehen esan bezala, 2013ko sarreraren %81a transferentzia arruntak dira. Beraz, kasu honetan are argiago ikusten da Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiekiko duen menpekotasun finantzarioa.

Hau horrela izanik, ikuspuntu finantzariotik Eusko Jaurlaritza ahula dela ikus daiteke. Foru aldundiek diru asko biltzen dute, baina ez daukate ahalmenik hau gestionatzeko, Eusko Jaurlaritza da diru honekin inbertsio eta gastu gehienak gestionatzen dituen.

Esan bezala, Euskadiren kasuan Eusko Jaurlaritzaren azterketan zentratuko naiz batik bat (horregatik, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua erabili dut oinarri gisa) baina guzti honek duen eragina azaltzeko, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza batzen dituen aurrekontu likidatua hartu eta hainbat adierazle ere kalkulatu ditut. Horrela, argi ikusiko da Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiekiko duen finantza menpekotasuna eta Foru Aldundirik gabe, Euskadi dezenteko ahulezi egoeran egongo litzatekeela ikusiko dugu.

### 1.3 Eranskinen azalpenak

Eranskinak ondorengo moduan daude antolatuturik:

-Autonomia Erkidego guztietan adierazle ezberdinak kalkulatu ditut eta eranskin gisa, autonomia erkidego guztietan banan bana eginiko kalkulu guzti horiek erantsi ditut. Euskadiren kasuan bi dokumentu egongo dira, bata Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua oinarritua (*Euskadi 1*) eta bestea Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontu likidatua (*Euskadi 2*).

Esan bezala, gero adierazle horietatik garrantzitsuenak iruditu zaizkidan hartu eta taula eta grafiko bakar batean laburbildu ditut, autonomia erkidego ezberdinetan izandako emaitzak konparatu ahal izateko. Horrela, konparazioa 1 eta konparazioa 2 eranskinak gehitu ditut (bata Euskadi 1-eko emaitzetan eta bestea Euskadi 2-ko emaitzetan oinarritua):

-*Konparazioa 1*: Taula eta grafiko hauetan oinarritu dut batik bat nire azterketa; autonomia erkidego bakoitzean izandako emaitzak laburbiltzen eta konparatzen dituzten taula eta grafikoak dira. Dokumentu idatzian erantsi ditudan taula eta grafikoak, alegia. (Euskadiren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua oinarrituz eginiko kalkuluak dira).

-*Konparazioa 2*: Autonomia erkidego bakoitzean izandako emaitzak laburbiltzen eta konparatzen dituzten taula eta grafikoak dira. (Euskadiren kasuan, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundien datuak batzen dituen aurrekontu likidatua oinarrituz eginiko kalkuluak dira).

-*Clasificación de las regiones Europeas por PIB per capita en paridad de poder de compra del año 2013*: "El País" egunkariko Europako eskualdeen aberastasuna artikuluari loturiko eranskina.

## 2 ARTIKULUAK

Aurrez azaldu dudana bezala, hasteko, aztertu beharreko gaiarekin bat datozen eta interesgarriak iruditu zaizkidan pare bat artikulua komentatuko ditut.

### 2.1 Artikulua 1. Europako eskualdeen aberastasuna

*El País* egunkarian argitaratutako artikulua da. Egilea: Sérvulo González, J. (2015eko maiatzak 23an argitaratua). Izenburua: Cuáles son las regiones más ricas y más pobres de Europa.

Artikulu honetan, Europako eskualde ezberdinen aberastasuna neurtu nahi da. Horretarako, Eurostat iturri gisa erabiliz, Europako batz besteko biztanleko Barne Produktu Gordina hartzen da erreferentziatzat, zifra horri 100 balioa ematen zaio eta Europako beste eskualdeen biztanleko BPG zenbat urruntzen den adierazten da, bai goitik eta bai behetik. Horrela, amaieran gehitu dudana "*Clasificación de las regiones Europeas por PIB per capita en paridad de poder de compra del año 2013*" deituriko eranskinean ikus daitekeen bezala, Europa 28a osatzen duten 273 eskualdeen sailkapen bat lortzen da, aberatsenetik pobreena ordenaturik.

Sailkapen horretan ikusten den bezala, Europako eskualderik aberatsenaren (Londreseko hiria) eta pobreenaren (Mayotee, Frantzia) artean dagoen ezberdintasuna ikaragarria da. Espainiako eskualdeak aztertzean, berriz, ez daudela oso posizio onean

ikus daiteke. Izan ere, ez dago Espainiako Autonomia Erkidegorik lehenengo 25 eskualde aberatsenen artean; zehazki, sailkapen honen arabera, Espainiako Autonomia Erkidegoetatik aberatsena Madril da eta 41. postuan aurkitzen da. Madrilgo biztanleko BPG Europako batz bestekoaren %128a da. Ondoren, 47. postuan Euskadi aurkitzen da eta honi jarraituz Nafarroa, 57. postuan; bi autonomia erkidego hauetako biztanleko BPG Europako batz bestekoaren %122a eta %116a da hurrenez hurren. Hiru horiez gain, Espainiako Autonomia Erkidegoetatik, Europako batz besteko biztanleko BPG baino altuagoa dutenak, Katalunia, Aragoi eta Errioxa dira, nahiz eta autonomia erkidego hauetako biztanleko BPGren eta Europako batz bestekoaren artean apenas ezberdintasunik ez egon (zehazki, batz bestekoa baino 11, 3 eta 2 puntu gehiago da biztanleko BPG autonomia erkidego horietan hurrenez hurren).

Gainontzeko Espainiako Autonomia Erkidegoetako biztanleko BPG Europako batz bestekoaren azpitik kokatzen da, eta kontutan eduki behar da oraindik ere aipatu ez ditudan 13 autonomia daudela. Alegia, Espainiako 19 Autonomia Erkidegoetatik, 6 autonomia erkidegoetako biztanleko BPG Europako batz bestekoaren gainetik kokatzen da (eta batz bestekotik ez direla asko urruntzen aipatu beharra dago) eta beste 13 autonomia erkidegoena, aldiz, batz bestekoaren azpitik. Posturik kaxkarrenean, Melilla (206 postuan) , Andaluzia (207) eta Extremadura (221) aurkitzen dira, autonomia erkidego horietako biztanleko BPG batz bestekoaren %70, %70 eta %65 izanik hurrenez hurren.


Sailkapen horretan, beraz, garbi ikusten da Europako eskualde aberatsenak Alemania eta Austria direla eta Espainiako egoera, berriz, oso larria dela. Era berean, Espainiako Autonomia Erkidegoen artean, Madrilen atzetik hoberen dauden autonomia erkidegoak Euskadi eta Nafarroa direla ere aipatzekoa da.

## **2.2 Artikulua 2. Espainiako probintzien arriskua krisiaren aurrean**

"El País" egunkarian argitaratutako artikulua da. Egilea: Alameda, D. (2015eko apirilak 13an argitaratua). Izenburua: La vulnerabilidad de España ante la crisis.


Jarraian erantsitako irudiak, artikulua horretatik hartuak dira.

## 1. Irudia. Espainiako probintzien arrisku-maila krisiaren aurrean



Iturria: El País egunkaria. 2015eko apirilaren 13an argitaratua.

## 2. Irudia. Espainiako herrien arrisku-maila krisiaren aurrean



Iturria: El País egunkaria. 2015eko apirilaren 13an argitaratua.

Artikulu honek, Espainiako probintzia ezberdinek krisiaren aurrean duten arriskuaz hitz egiten du. Erantsi dudan lehenengo mapa horretan ikusten den bezala, probintziak, krisiaren aurrean duten arriskuaren arabera kolore ezberdinez agertzen dira. Bigarren mapan, aldiz, alde batetik arrisku gehien eta arrisku gutxien duten zonak mapan adierazirik daude eta bestalde, arrisku gehien eta gutxien duten herriak eta hauek zein probintziatakoak diren dago adierazita.

Hemen beraz, adierazgarria da Euskadiren egoera ona Espainiako beste Autonomia Erkidegoenarekin alderatuta; izan ere, Euskadiko probintziak (Gipuzkoa eta Bizkaia, batik bat) krisiaren aurrean arrisku gutxien duten probintzien artean aurkitzen dira. Galizia eta Extremadurako probintziak ere, orokorrean, arrisku gutxien duten

probintzien artean aurkitzen direla esan beharra dago. Bestalde, arrisku gehien duten probintzien artean, Almeria, Murtzia, Balentzia, Castellon eta Toledo aurkitzen dira.

### 3 BARNE PRODUKTU GORDINA

Hasteko, **Barne Produktu Gordina** zer den azalduko dut. BPG herrialde baten jarduera ekonomikoa neurtzeko erabiltzen da, zehazki, herrialde bateko ekoizpen-faktore ezberdinek, denboraldi jakin batean lortutako sarrerak batuz kalkulatzen da BPG, eta diru-unitate batean adierazten da (euroa gure kasuan).


Hala ere, azterketak egiterako orduan, **biztanleko BPG** erabiltzen da, izan ere, gerta daiteke herrialde batek ekoizpen eta diru sarrera handiak izatea, baina aldi berean baita biztanle kopuru handia edukitzea ere. Horregatik, biztanleriaren aberastasuna islatzeko, BPGren balio absolutu hori biztanleriarekin zatitu behar da, horrela biztanle bakoitzak eurotan duen aberastasuna lortuko da. Hau horrela izanik, 2008tik 2013ra bitartean Espainiako Autonomia Erkidegoetako biztanleko BPG kalkulatu dut.

#### 3.1 BPG biztanleko

5. Taula. Barne Produktu Gordina biztanleko (€-tan)						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
EUSKADI	30.440	29.042	29.477	29.687	29.221	28.969
MADRIL	30.544	29.836	29.306	29.327	28.877	28.737
NAFARROA	29.111	27.951	28.103	28.349	27.810	27.601
KATALUNIA	27.037	25.867	25.912	25.853	25.744	25.963
ERRIOXA	25.876	24.727	24.853	24.882	24.632	24.634
ARAGOI	25.821	24.652	24.741	24.786	24.323	24.230
BALEARRAK	25.359	23.974	23.576	23.592	23.324	23.356
GAZTELA ETA LEON	22.161	21.481	21.590	21.804	21.563	21.428
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>22.935</b>	<b>21.922</b>	<b>21.846</b>	<b>21.735</b>	<b>21.350</b>	<b>21.277</b>
KANTABRIA	22.683	21.618	21.623	21.530	21.255	21.074
ASTURIAS	21.993	20.748	20.877	20.918	20.504	20.228
GALIZIA	20.897	20.162	20.329	20.181	20.030	20.094
BALENTZIA	21.567	20.290	20.074	19.836	19.581	19.638
KANARIAK	20.828	19.619	19.603	19.520	19.082	19.055
MURTZIA	20.187	19.016	19.039	18.590	18.224	18.026
GAZTELA MANTXA	18.884	17.994	17.662	17.623	17.262	17.343
CEUTA	19.742	19.013	18.612	17.877	17.233	17.175
ANDALUZIA	18.125	17.234	17.000	16.902	16.556	16.486
MELILLA	18.413	17.708	17.107	16.360	15.553	15.456
EXTREMADURA	16.104	15.591	15.583	15.352	14.870	14.775

Iturria: Norberak egina egina INEko datuetan oinarrituta.

1. Grafikoa. Barne Produktu Gordina biztanleko (€)



Iturria: Norberak egina egina INEko datuetan oinarrituta.

5. Taula eta 1. grafiko horietan ikus daiteken bezalaxe, Espainiako Autonomia Erkidego guztietan 2013an dagoen biztanleko BPG 2008an zegoena baino baxuagoa da; hau da, orokorrean, Barne Produktu Gordina aberastasun ekonomiko bezala ulertzen badugu, 2013ko biztanleriaren aberastasuna 2008koa baino baxuagoa dela esan daiteke. Adierazitako taulan autonomia erkidegoak 2013ko biztanleko BPGren arabera daude ordenaturik, handiena dutenetik baxuenera; hori horrela izanik, 2013an autonomia erkidegorik aberatsenak Euskadi, Madril eta Nafarroa direla esan daiteke eta okerren daudenak, berriz, Andaluzia, Melilla eta Extremadura.

**Euskadi** da 2013an biztanleko BPG altuena duen autonomia erkidegoa; hala ere, 2008an zegoena baino baxuagoa dela esan beharra dago. 2008ko biztanleko BPG 30.440€-tako zen eta 2013koa, berriz, 28.969€-tako. Datu hauek, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua edota Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontua erabiliz berdina dira, hemen aurrekontu horietako datuek ez baitaude eraginik.

**Madrilgo** biztanleko BPG murrizten joan da urtez urte. 30.544€-tako zen 2008an eta urtero urtero apur bat jaisten joan da, 2013an 28.737€-tako izanik. Nahiz eta murriztu, ordea, 2013an hoberen dauden autonomia erkidegoen artean dagoela esan beharra dago.

**Nafarroan** 2008an biztanleko BPG 29.111€-tako zen. Ondorengo urteetan gorabeherak egon dira eta azkenean, 2013an, 27.601€-tara murriztu da aldagai honen balioa.

2013an biztanleko BPG baxuena dutenen artean, esan bezala, **Andaluzia** aurkitzen da. 2008an bertako biztanleko BPG 18.125€-tako zen, eta kopuru hau jaisten joan da urtez urte 2013an 16.486€ izateraino murriztu delarik.



**Melillaren** kasuan, alde batetik, orokorrean bertako biztanleko BPG baxua da aipatzekoa eta bestalde, gainera, 2008tik 2013ra biztanleko BPG balio absolututan gehien jaitsi zaion autonomia erkidegoa izan dela aipatu beharra dago. 2008an 18.125€-tako zen; kopuru hau jaisten joan da urtero eta 2013an 15.456€-tara iritsi da; alegia, 2.957€-tan murriztu da Melillako biztanleko BPG 2008tik 2013ra. Jaitsiera hau, alde batetik, Melillako 2013ko BPG balio absolutuan 2008koa baino baxuagoa delako gertatu da (5. taulan adierazten den bezala %4,04 baxuagoa, zehazki) baina bestalde, baita ere, Melillako biztanleria hazi egin delako, Melillan 2013an dauden biztanleak 2008an zeudenak baino %14,13 gehiago baitira.

**Extremadura** da 2013an biztanleko BPG baxuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa. 2008an egoera berdinean zegoela ere aipatu beharra dago, izan ere, 2008ko biztanleko BPG 16.104€-tako zen soilik eta 2013an, are gehiago jaitsi da: 14.775€-tara zehazki.


Bestalde, nahiz eta autonomia erkidego guztietako 2013ko biztanleko BPG 2008koa baino baxuagoa izan, biztanleko BPGk 2008tik 2013ra Balearretan, Murtzian, Ceutan eta oraintxe esan dudak bezala Melillan izan duen beherakada nabarmendu behar da.

**Balearrei** dagokionez, 2013an Espainiako Autonomietako batz besteko biztanleko BPG baino altuagoa duela aipatu beharra dago, baina hala ere, 2008arekin alderatuz eman den beherakada nabarmenezkoa da, zehazki, 2.003€-tako beherakada izan baitu. Honen arrazoia, alde batetik BPGk balio absolutuan jaitsiera bat izan zuela da (5. taulan ikus daitekeen bezala: 2013koa 2008koa baino %3,97 baxuagoa da), baina, baita ere, biztanleria %4,27an hazi dela aipatu beharra dago.


**Murtziaren** kasuan, 20.187€-tako izatetik 18.026€-tara jaitsi da, 2013ko biztanleko BPG 2008koa baino 2.162€ baxuagoa da, alegia. Honen arrazoia, jarraian ikusiko dugun bezala, BPGk balio absolutuan izandako jaitsiera izan da, biztanleria apenas aldatu baita.

**Ceutan**, 2008an 19.742€ izatetik, 2013an 17.175€ izatera jaitsi da biztanleko BPG (2.567€-tako jaitsiera), eta honen arrazoia, aldiz, batik bat biztanleriaren hazkuntza izan da. Izan ere, 2013ko biztanleria 2008koa baino %10,08 "handiagoa" da eta BPG balio absolutuan, berriz, %4,23 baxuagoa.

### 3.2 BPGren hazkundera 2008-2013 epean



2. Grafikoa. BPGren hazkundera 2008-2013 epean (%)



Hasieran esan bezala, BPG aztertzerakoan garrantzitsua da hau biztanleriarekin erlazionatzea. Izan ere, 2013ko BPG balio absolutuan, 2008an zegoenarekin alderatzen bada, **Ceuta, Melilla, eta Balearrak** gutxien jaitsi den autonomia erkidegoen artean daudela ikus daiteke; zehazki, Ceutako 2013ko BPG balio absolutuan, 2008koa baino %4,23 baxuagoa da; Melillakoa %4,04 baxuagoa eta Balearretakoa %3,97 baxuagoa. Baina oraintxe esan bezalaxe, biztanleko BPGri dagokionez, beherakada nabarmena egon da 2008tik 2013ra; esan bezala, honen arrazoia biztanleriaren hazkundera izan da. Aipatzeko da, baita ere, **Nafarroako** 2013ko BPG balio absolutuan 2008koa baino %3,80 baxuagoa izan dela soilik.

**Asturiasen** kasuan, aldiz 2013ko BPG balio absolutuan 2008koa baino %9,5 baxuagoa da. Bertako biztanleria ere, ordea, apur bat jaitsi egin da eta horregatik, biztanleko BPGean, nahiz eta dezente jaitsi den, beherakada ez da aipatutako hainbat autonomia erkidegoetan bezain nabarmena izan.

**Murtziaren** kasuan, 2013an dagoen BPG balio absolutuan 2008koa baino dezente baxuagoa da (6. taulan adierazten den bezala %9,47 baxuagoa) eta gainera, nahiz eta oso aldaketa txikia izan, 2013ko biztanleria 2008koa baino apur bat altuagoa da, horregatik, lehen esan bezala, biztanleko BPGean beherakada nabarmena egon da.

2. Grafiko horretan ikusten den bezalaxe, 2013ko **Balentiako** BPG balio absolutuan 2008arekin alderatzen bada, nabarmen jaitsi da, zehazki, 2013koa 2008koa baino %9,40 baxuagoa izan da.

## 4 AURREZKI GORDINA

### 4.1 Definizioa

Aurrezki gordinak, autonomia erkidegoek euren baliabideekin zama finantzarioa eta inbertsioak finantzatzeko duten ahalmenaren berri ematen du; izan ere, sarrera

arruntekin gastu arrunt ez-finantzarioei aurre egin ondoren gelditzen den zatia da (sarrera arruntak - gastu arrunt ez finantzarioak, alegia). Aurrezki gordina zama finantzarioaren balio berekoa edo handiagoa izatea komeni da, bestela, autonomia erkidegoek ezingo lukete zama finantzarioa ordaindu eta inbertsioei aurre egiteko autofinantzaketarik ere ez lukete izango.

#### 4.2 Kalkuluak


- (1) Sarrera arruntak: 1etik 5era bitarteko sarrera-kapitulua
- (2) Gastu arrunt ez finantzarioak: Gastuetako 1, 2 eta 4 kapituluak
- (3) Aurrezki gordina, **balio absolutuan**: (1)-(2)
- Aurrezki gordina, **balio erlatiboan**: (3)/(1)\*100
- Aurrezki gordina, **biztanleko**: (3)/Biztanleria

#### 4.3 Aurrezki Gordina Balio Erlatiboan

7. Taula. Aurrezki gordina balio erlatiboan						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
CEUTA	9,37%	3,55%	2,21%	9,07%	9,22%	15,87%
BALEARRAK	-0,61%	-1,58%	-13,44%	-13,99%	-16,67%	9,21%
KANTABRIA	16,76%	11,83%	-3,64%	1,37%	-11,39%	7,94%
MELILLA	7,12%	6,02%	6,95%	2,66%	9,65%	7,80%
GAZTELA ETA LEON	19,32%	16,17%	2,93%	1,53%	-9,44%	5,93%
ASTURIAS	14,25%	9,57%	2,01%	-2,70%	-6,46%	4,53%
GALIZIA	17,17%	12,25%	1,76%	2,15%	1,82%	4,45%
ARAGOI	12,76%	5,32%	-2,14%	-7,67%	-4,65%	4,29%
NAFARROA	14,28%	13,39%	12,24%	10,39%	4,24%	4,26%
MADRIL	4,02%	3,77%	-1,41%	4,60%	-11,20%	3,02%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>9,38%</b>	<b>4,54%</b>	<b>-2,76%</b>	<b>-3,88%</b>	<b>-4,83%</b>	<b>2,59%</b>
ERRIOXA	10,18%	8,47%	-5,51%	6,56%	-1,18%	2,13%
EUSKADI	6,95%	-15,74%	-1,28%	-1,65%	3,36%	1,65%
EXTREMADURA	10,09%	6,35%	-4,20%	-5,57%	-6,48%	0,60%
KANARIAK	8,79%	3,62%	-3,35%	-2,46%	-7,41%	-0,60%
KATALUNIA	-0,53%	-8,60%	-12,49%	-16,44%	-2,96%	-2,49%
ANDALUZIA	12,04%	8,82%	2,75%	-1,63%	-9,46%	-3,44%
MURTZIA	5,03%	6,41%	-14,50%	-14,97%	-8,78%	-3,78%
GAZTELA MANTXA	3,06%	-4,76%	-16,16%	-36,93%	-3,61%	-5,47%
BALENTZIA	8,18%	1,32%	-5,09%	-7,99%	-20,35%	-6,76%

Iturria: Norberak egin MINHAPeko datuetan oinarrituta.

3. Grafikoa. Aurrezki gordina balio erlatiboan



Iturria: Norberak egin MINHAPEko datuetan oinarrituta.

Aurrezki gordina balio erlatiboan aztertzean, Aurrezki gordinak sarrera arruntekiko duen portzentajea adierazten da. 7. Taula eta 3. grafikoan ikusten den bezala, 2008tik 2013ra ia autonomia erkidego guztietan jaitsi egin da aldagai hau; beraz, orokorrean, 2013ko Espainiako egoera 2008koa baino okerragoa dela esan daiteke. Aldagai honi dagokionez, hainbat berezitasunengatik ondorengo autonomia erkidegoak aipatuko nituzke:

Hasteko, aldagai honek 2013an duen balioa 2008koa baino altuagoa izatea, Ceutan, Balearretan eta Melillan bakarrik gertatu da.

**Ceutari** dagokionez, 2008tik 2010era bitartean jaitsi egin zen (%9,37tik %2,21era), baina ondorengo hiru urteetan gorakada bat izan du eta 2013an %15,87ko balioa du. 2013an aldagai hau altuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa da.

**Balearrei** dagokionez, 2008. urtean aldagai hau negatiboa zen (%-0,61) eta ondorengo lau urteetan gehiago areagotu zen negatibotasun hau, zehazki, 2012an %-16,67koa izatera iritsi zen. 2013. urtean, ordea, egoera asko aldatu da eta aurrezki gordina balio erlatiboan ikaragarri igo da, %9,21eraino zehazki. Hain zuzen ere, 2013. urtean aldagai honek Balearretan izan du bigarren baliorik altuena.

**Melillaren** kasuan, 2008tik 2013ra bitartean gorabeherak izan ditu baina aurrez esan bezala, azken finean aldagai honen 2013ko balioa 2008koa baino zertxobait altuagoa da, 2013an altuena duen autonomia erkidegoen artean aurkitzen da (7. taulan ikusten den bezala 2013an %7,80koa da bere balioa).

**Kantabriaren** kasuan, aipatzekoak dira egon diren gorabeherak: 2008an aurrezki gordina balio erlatiboan %16,76koa zen. 2012an %-11,39raino jaitsi zen eta azkenik, 2013an, Espainiako Autonomia Erkidegoen artean, aurrezki gordina balio erlatiboan altuena duen hirugarren autonomia erkidegoa da: %7,94.

Bestalde, aurrezki gordina balio erlatiboan aztertzean, 2008tik 2013ra bitartean beherakada handiena ondorengo autonomia erkidegoetan izan du:

**Gaztela eta Leonen** kasuan, 2008. urtean %19,32ko balioa zuen eta ondorengo lau urteetan beherakada itzela izan zuen, 2012an negatibo izatera iritsiz (%-9,44 zehazki). 2013. urtean egoera hobetu egin zen, aldagai honen balioa positibo izatera iritsiz (%5,93), baina, hala ere, aztertzen ari naizen bost urteetan beherakada nabarmena izan duela ikus daiteke.

**Galiziaren** kasuan ere, nahiz eta urtero positibo mantendu, 2008tik 2012ra %17,17tik %1,82ra jaitsi zen. Azken urtean, 2013an alegia, %4,45era igo da bere balioa baina, hala ere, beherakada nabarmena egon dela aipatu behar da.

**Andaluzian** izan du 2008tik 2013ra bitartean beherakadarik handiena, positiboa izatetik negatiboa bihurtzeraino. 2008an %12,04koa zen eta 2012an %-9,46raino jaitsi zen. 2013an zertxobait hobetu da egoera eta igo egin da aldagai honen balioa, baina negatiboa izaten jarraitzen du: %-3,44.

**Balentiaren** bilakaera ere oso kaxkarra izan da, 2008. urtean %8,18koa zen aurrezki gordina balio erlatiboan eta 2012. urtean %-20,35eraino jaitsi zen. Aztertzen ari naizen azken urte honetan asko igo da bere balioa baina, hala ere, negatiboa izaten jarraitzen du: %-6,76. 2013. urtean Espainiako Autonomia Erkidegoetatik aurrezki gordina balio erlatiboan baxuena autonomia erkidegoa da.

**Kataluniari** dagokionez, nahiz eta 2013. urtean aldagai honi dagokionez okerren dagoen autonomia erkidegoa ez izan, aztertzen ari naizen urte guzti hauetan bere balioa negatiboa izan dela aipatu beharra dago. 2008an, %-0,53koa zen, 2011. urtean %-16,44raino jaitsi zen eta azkenik 2013. urtean %-3,44koa da bere balioa.

**Gaztela Mantxaren** egoera oso kaxkarra da, 2013. urtean aldagai honen balioa %-5,47koa delarik. Autonomia erkidego honetan ere, 2008an izan ezik aztertzen ari naizen beste urte guztietan negatiboa izan da aldagai hau eta 2011. urtean %-36,93raino jaitsi zen. Aurrezki garbia balio erlatiboan 2013an baxuena duen autonomia erkidegoa da Balentiaren atzetik.


**Murtzia** ere aldagai hau 2013an baxuena duen autonomia erkidegoen artean kokatzen da. Esan beharra dago, aldagai hau ez dela behin ere oso altua izan Murtzian; 7. taulan ikusten den bezala, 2008an %5,03koa zen; %-14,97raino jaitsi zen 2011ean eta azkenik, 2013an %-3,78koa da.

Aurrezki gordina balio erlatiboan aztertuz, beraz, orokorrean Espainiako Autonomia Erkidego guztietan 2013an dagoen egoera 2008an zegoena baino kaxkarragoa dela ondoriozta daiteke. Taulan autonomia erkidegoak aldagai honen baliorik altuenetik baxuenera ordenaturik daude, beraz, aldagai honen arabera, 2013. urtean, egoerarik hoberenean Ceuta eta Balearrak egongo lirarteke eta egoerarik kaxkarrenean, aldiz, Gaztela Mantxa eta Balentzia.

#### 4.4 Aurrezki gordina biztanleko

8. Taula. Aurrezki gordina biztanleko (€)						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
CEUTA	245,83	98,73	57,22	226,08	234,06	405,65
KANTABRIA	610,77	435,74	-114,31	42,29	-347,49	253,71
BALEARRAK	-16,22	-40,14	-310,47	-281,32	-388,56	223,06
NAFARROA	876,07	813,65	719,29	569,41	209,23	210,06
MELILLA	174,88	157,62	175,97	62,60	239,83	189,58
GAZTELA ETA LEON	688,60	588,48	95,30	45,93	-292,07	161,27
ASTURIAS	482,09	330,96	61,05	-79,24	-191,87	134,42
GALIZIA	629,29	447,79	55,02	58,12	48,54	120,32
ARAGOI	442,07	193,03	-68,00	-236,45	-140,01	114,60
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>338,67</b>	<b>175,08</b>	<b>-58,19</b>	<b>-89,75</b>	<b>-120,19</b>	<b>79,40</b>
MADRIL	105,23	105,75	-34,78	112,70	-272,14	69,90
ERRIOXA	358,69	305,82	-171,54	212,73	-37,26	64,51
EUSKADI	267,04	-535,07	-48,96	-63,87	135,53	61,94
EXTREMADURA	424,36	264,06	-154,72	-194,24	-216,35	17,94
KANARIAK	274,05	119,57	-93,72	-65,10	-184,29	-15,29
KATALUNIA	-17,26	-303,70	-382,13	-480,00	-90,10	-65,13
ANDALUZIA	418,98	306,99	83,45	-47,34	-259,46	-79,25
MURTZIA	141,51	185,55	-356,99	-348,61	-196,10	-86,19
GAZTELA MANTXA	114,97	-183,41	-497,13	-1.062,64	-100,62	-129,09
BALENTZIA	213,67	35,14	-120,22	-176,38	-434,50	-143,43

Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.



Aldagai hau aztertzeko, Espainiako Autonomia Erkidegoetako biztanleko aurrezki gordina kalkulatu dut. Autonomia guztietan 2013an dagoen biztanleko aurrezki gordina 2008an zegoena baino baxuagoa da, aurreko puntuan bezalaxe, Ceutan, Balearretan eta Melillan izan ezik.

**Ceutare**n kasuan, 2008. urtean aurrezki gordina biztanleko 245,83€-takoa zen. 2010. urtean 57,22€-taraino jaitsi zen bere balioa baina ondorengo urteetan berriz ere igotzen hasi zen eta 2013. urtean 405,65€-taraino igo da bere balioa. 2013an biztanleko aurrezki gordin altuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa da.

**Balearretan** 2008. urtean negatiboa zen aldagai hau, zehazki, 8. taulan adierazten den bezala, biztanleko zegoen aurrezki gordina -16,22€-takoa zen. 2012. urte-arte beharakada itzela izan zuen aldagai honek, 2012. urtean biztanleko aurrezki gordina -388,56€-takoa izatera iritsiz. 2013. urtean, ordea, asko aldatu da egoera eta Balearretan, aldagai honen balioa 223,06€-takoa da. 2013an aldagai hau altuena duten autonomia erkidegoen artean kokatzen da.

**Melillaren** kasuan, aurrezki gordina balio erlatiboan aztertzean gertatzen zen bezala, 2008tik 2013ra bitartean gora beherak izan ditu aldagai honek, baina 2013ko biztanleko aurrezki gordina 2008koa baino zertxobait altuagoa da azken finean: 2008an 174,88€-takoa zen eta 2013an 189,58€-takoa da.

**Kantabriaren** kasuan, aurrezki gordina balio erlatiboan aztertzean esan dudan bezalaxe, hemen ere izandako gorabeherak aipagarriak dira: 2008ko biztanleko aurrezki gordina 610,77€-takoa zen; 2012an -347,49€-taraino jaitsi zen eta 2013an, aldiz, aldagai hau altuena duen bigarren autonomia erkidegoa da: 253,71€-takoa izanik bere balioa.

2008tik 2013ra aldagai honek izan duen beherakadagatik ondorengo autonomia erkidegoak aipatzekoak dira:

**Nafarroan** izan du aldagai honek beherakadarik handiena; 2013an, nahiz eta hoberen dagoen autonomia erkidegoen artean egon, 2008arekin konparatuz egoera kaxkarrean aurkitzen dela esan daiteke. Izan ere, Nafarroan biztanleko aurrezki gordina 2008an 876,07€-takoa zen. Hurrengo urteetan jaisten joan da pixkanaka eta azkenik, 2013an, aldagai honen balioa 210,06€-takoa izan da (2008an zuen balioaren laurdena baino gutxiago).

**Gaztela eta Leonen** kasuan, nahiz eta 2013. urtean positiboa izan, beheraka nabarmena izan du aldagai honek aztertzen ari naizen bost urte hauetan. 2008. urtean, aurrezki gordina biztanleko 688,60€-takoa zen eta 2012an negatibo izatera iritsi zen, -292,07€-takoa zehazki. 2013. urtean nahiz eta berriz ere positiboa izan (161,27€), 2008arekin alderatuz ikaragarritzko beherakada eman da.

**Galiziaren** kasuan ere, nahiz eta negatibo izatera ez iritsi, 2008tik 2012ra 629,29€-takoa izatetik 48,54€-tara jaitsi zen. Azken urtean 120,32€-tara igo da baina, hala ere, beherakada handia da lehen urtearekin alderatuz.

**Andaluziaren** kasuan egoera okerragoa da, izan ere, 2008an positiboa izatetik 2013an negatibo izatera pasatzen da aldagai hau. 2008an biztanleko aurrezki gordina nahiko altua zen (8. taulan ikusten den bezala, 418,98€-takoa) eta -259,46€-taraino jaisten da 2012an. Azken urtean, nahiz eta gorakada nabarmena izan, negatiboa izaten jarraitzen du: -79,25€.

Azkenik, 2013. urtean Kanarrietan, Katalunian, Murtzian, Gaztela Mantxan, Balentzian eta oraintxe esan bezala Andaluzian, biztanleko aurrezki gordina negatiboa dela esan beharra dago. Hau da, autonomia erkidego hauetako biztanleek ez daukate aurrezkirik,

baizik eta, teorian, biztanle bakoitzak diru kantitate hori jarri beharko luke zama finantzarioari aurre egiteko eta inbertsioak finantzatzeko.

**Katalunian** aipatzekoa da bost urte hauetan biztanleko aurrezki gordina negatiboa izan dela. 2008an -17,26€-takoa zen eta 2011ean -480€-taraino jaitsi zen. Gero, azken bi urteetan, nahiz eta negatiboa izaten jarraitu, gorakada bat izan du, 2013an -79,25€-takoa izanik bere balioa.


**Murtziaren** egoera ere ez dela batere ona ikus daiteke: 2008an aurrezki gordina biztanleko 141,51€-takoa zen; 2010ean -356,99€-taraino jaitsi zen eta 2013an -86,19€-takoa da.

**Gaztela Mantxan**, 2013. urtean biztanleko aurrezki gordina oso baxua da: -129,09€-takoa (zehazki, Balentzian soilik dago hau baino biztanleko aurrezki gordin baxuagoa). Esan beharra dago, beste autonomia erkidegoekin alderatuta, 2008an ere aldagai honen balioa ez zela oso altua (114,97€) baina aipatzeko datu interesgarria da aldagai honek 2012an izan zuen beherakada, izan ere, urte honetan biztanleko aurrezki gordina -1.062,64€ izateraino jaitsi zen.

**Balentziaren** kasuan, 2013. urtean biztanleko aurrezki gordin baxuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa dela esan beharra dago, 2008an 213,67€-takoa izatetik 2013an -143,43€-taraino jaitsi delarik. Hala ere, 2012an bere balioa are negatiboagoa zela esan beharra dago: -434,50€-takoa.

Biztanleko aurrezki gordina aztertuz, beraz, orokorrean Espainiako Autonomia Erkidego guztien 2013ko egoera 2008koa baino okerragoa dela esan daiteke. 2013. urtean, 8.taula eta 4. grafikoan ikus daitekeen bezala, biztanleko aurrezki gordin altuena duten autonomia erkidegoak Ceuta eta Kantabria dira eta egoera kaxkarrenean, berriz, aurrezki gordina balio erlatiboan aztertzean gertatzen zen bezalaxe Gaztela Mantxa eta Balentzia izango genituzke.

#### 4.5 Aurrezki gordinaren hazkundea 2008-2013 epean





Jarraian, aurrezki gordinaren balio absolutuen hazkundea aztertuko dut 2013ko egoera 2008koarekin alderatuz. 5. Grafiko horretan ikusten den bezalaxe, 2013an aurrezki gordina balio absolutuan 2008an baino handiagoa, Balearretan, Ceutan eta Melillan bakarrik da. Beste autonomia erkidego guztietan, alegia, 2013ko aurrezki gordina balio absolutuan 2008an zegoena baino baxuagoa da.

**Balearretan** izan duen aldaketa nabarmentzekoa da, izan ere, 2013ko aurrezki gordina balio absolutuan, 2008koa baino %1.534,17 handiagoa da. Hala ere, aipatu behar da 2008an oso egoera txarrean zegoela, aurrezki gordina negatiboa baitzen.

**Ceuta**ren kasuan aldiz, nahiz eta aldaketa garrantzitsua izan, igoera ez da hain nabarmena; zehazki, 2013ko aldagai honen balioa 2008koa baino %81,64 handiagoa da eta **Melilla**ren kasuan, berriz, %23,93 handiagoa.

2013. urtean aurrezki gordina balio absolutuan negatiboa duten Espainiako Autonomia Erkidegoak ondorengoak dira: Kanariak, Katalunia, Murtzia, Gaztela Mantxa, Andaluzia eta Balentzia. Autonomia erkidego hauek, beraz, aurrez esan bezala, 2013. urtean ezingo lukete zama finantzarioa ordaindu eta hori horrela izanik, noski, inbertsioei aurre egiteko autofinantzaketarik ere ez lukete izango.

9. Taula eta 5. grafikoan ikusten den bezala, hainbat autonomia erkidegoetako 2013ko aurrezki gordina balio absolutuan, 2008koa baino askoz ere baxuagoa da; honi dagokionez aipatzekoak dira: **Katalunia, Gaztela Mantxa eta Balentzia**. Izan ere, aldagai honen 2013ko balioa 2008koa baino %276,83, %212,76 eta %166,79 baxuagoa da hurrenez hurren autonomia erkidego horietan. Oraintxe esan dudanez bezala, 2013. urtean hiru autonomia erkidego horietan aurrezki gordina negatiboa da.

Aipatzekoa da, taula eta grafiko horietan adierazten den bezala, Espainiako Autonomia Erkidegoetako 2013ko aurrezki gordina balio absolutuan 2008koa baino %6,86 baxuagoa dela batz bestea, baina datu hori ezin da erreferentziatzat hartu. Izan ere, orokorrean, autonomia erkidego guztietan 2013ko aldagai honen balioa 2008koa baino askoz ere baxuagoa da, baina Balearretan izan duen gorakada itzelak eragin handia izan du batz bestekoan, hau distortsionatzen duelarik.

#### 4.6 Sarrera arrunt eta gastu arrunt ez finantzarioen hazkundea 2008-2013 epean


Aurrezki gordinaren kalkuluan, sarrera arruntak eta gastu arrunt ez finantzarioak hartzen dira kontutan, beraz, hauen egoera aztertzea ere garrantzitsua da.

10. Taula. Sarrera arrunten hazkundera 2008-2013 epean (%)

	HAZK2013/08
GAZTELA MANTXA	-37,03%
ANDALUZIA	-32,40%
EXTREMADURA	-29,35%
GALIZIA	-26,80%
GAZTELA ETA LEON	-25,34%
ARAGOI	-23,48%
KATALUNIA	-20,30%
BALENTZIA	-19,14%
NAFARROA	-18,42%
MURTZIA	-17,89%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>-15,98%</b>
ERRIOXA	-15,39%
KANARIAK	-15,17%
ASTURIAS	-13,67%
KANTABRIA	-11,90%
MADRIL	-10,77%
BALEARRAK	-4,37%
EUSKADI	-2,60%
CEUTA	7,30%
MELILLA	13,07%

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

6. Grafikoa. Sarrera arrunten hazkundera 2008-2013 epean (%)




Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

11. Taula. Gastu arrunt ez finantzarioen hazkundera 2008-2013 epean (%)

	HAZK2013/08
GAZTELA MANTXA	-31,49%
EXTREMADURA	-21,89%
ANDALUZIA	-20,51%
KATALUNIA	-18,74%
ARAGOI	-16,05%
GALIZIA	-15,56%
BALEARRAK	-13,71%
GAZTELA ETA LEON	-12,95%
MURTZIA	-10,27%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>-10,09%</b>
MADRIL	-9,84%
NAFARROA	-8,89%
ERRIOXA	-7,81%
KANARIAK	-6,43%
BALENTZIA	-5,98%
ASTURIAS	-3,88%
KANTABRIA	-2,57%
CEUTA	-0,38%
EUSKADI	2,95%
MELILLA	12,23%

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

7. Grafikoa. Gastu arrunt ez finantzarioen hazkundera 2008-2013 epean (%)



Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Jarraian egingo dudan azterketan, 2013an dauden sarrera arrunt eta gastu arrunt ez finantzarioak 2008an zeudenekin alderatuko ditut. Autonomia erkidego guztietan 2013an dauden sarrera arruntak baxuagoak dira 2008an zeudenak baino, Ceuta eta Melillan izan ezik. Gastu arrunt ez finantzarioei dagokionez, Espainiako Autonomia Erkidego guztietan 2013an gutxiago dira 2008an baino, Melillan eta Euskadin izan ezik. Hauek aurrezki gordinean duten eragina kontutan izanik, aipatzekoak dira ondorengo autonomia erkidegoak:

**Melillaren** kasuan, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino % 13,07 altuago dira baina gastuak ere %12,23 gehiago dira. Beraz, honek, aurrez esan bezala, 2013ko bai aurrezki gordina balio erlatiboan nahiz absolutuan eta bai biztanleko ere, 2008koa baino zertxobait altuagoa izatea ekarri du.

**Ceutan**, berriz, 2013ko sarrera arruntak %7,30 batean igo dira 2008koekiko, baina gastuak, aldiz, nahiz eta oso gutxi izan, %0,38an jaitsi dira. Honek, beraz, eta biztanleria nahiko konstante mantendu dela kontuan izanik (nahiz eta gorakada bat izan duen), 2013ko aurrezki gordina balio erlatiboan nahiz absolutuan eta biztanleko aurrezki gordinaren balioak 2008koak baino altuagoak izatea ekarri du.

**Balearrei** dagokionez, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino zertxobait baxuagoak dira ( 10. taulan ikusten den bezala %4,37 baxuagoak) baina gastuak arrunt ez finantzarioak, aldiz, %13,71 baxuagoak. Hau da, beraz, aurrez aipaturiko 2013ko aurrezki gordinak balio absolutuan nahiz erlatiboan eta biztanleko aurrezki gordinak 2008arekiko izandako gorakadaren eragilea.

Hasieran esan dudana bezala, beste autonomia erkidego guztietan (Euskadin izan ezik), 2013ko sarrera eta gastuak 2008koak baino baxuagoak dira, baina aipatzekoak dira hainbat kasu:

**Gaztela eta Leonen** kasuan, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino %25,34 baxuago dira; gastu arrunt ez finantzarioak ere murriztu egin dira, baina askoz ere proportzio txikiago batean: %12,95a.

**Galizian** eta **Andaluzian** ere berdina gertatu da, hau da, 2013ko bai sarrerak eta bai gastuak 2008koak baino baxuagoak dira, baina sarrerak askoz ere proportzio handiagoan jaitsi dira gastuak baino (10. eta 11. taulatan daude portzentaje zehatzak) eta horregatik, aurrez esan bezala, aipaturiko hiru autonomia erkidego horietan aurrezki gordina erlatiboki nahiz balio absolutuan eta biztanleko aurrezki gordina askoz ere baxuagoa da 2013an 2008an baino.

**Katalunian**, hasteko, lehen esan bezala, 2008arekin alderatuz, 2013an aurrezki gordina (balio absolutuan) gehien jaitsi den autonomia erkidegoa izan da, izan ere, sarrerak eta gastuak ia proportzio berean jaitsi dira: 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino %20,30 baxuagoak dira eta gastu arrunt ez finantzarioak %18,74 baxuagoak. Bestalde, bost urte hauetan urtero gastu arrunt ez finantzarioak sarrera arruntak baino handiagoak izan dira eta horrek, aurrezki gordina balio absolutuan negatiboa izatea ekarri du urtero. Horregatik, lehen aipatu dudana bezala, aurrezki gordina balio erlatiboan eta biztanleko negatiboak izan dira 2008tik 2013ra bitartean.

**Gaztela Mantxan**, 2013ko bai sarrerak eta bai gastuak 2008koak baino askoz ere baxuagoak dira, aldaketa handiena eman den autonomia erkidegoa izan da; zehazki, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino %37,03 baxuagoak dira eta gastu arrunt ez finantzarioak, aldiz, %31,49 baxuagoak; hori izan da, beraz, aurrezki gordinak absolutuki horrelako beherakada izatearen arrazoia. Bestalde, 2008an izan ezik, sarrerak gastuak baino dezentez baxuagoak izan dira gainontzeko urteetan; ondorioz, aurrezki gordina balio absolutuan, erlatiboan nahiz biztanleko, negatiboak izan dira urte horietan.

**Balentiaren** kasuan, 2013. urtea 2008arekin alderatuz, sarrerak gastuak baino dezentez gehiago jaitsi dira ( sarrerak: %19,14 eta gastuak %5,98); horregatik, aurrezki

gordina sarrera arruntekiko adieraztean, hau da, erlatiboki, beherakada handia izan du. Bestalde, 2009tik 2013ra bitartean, urtero izan diren gastuak sarrerak baino askoz ere handiagoak izan dira eta hori dela eta aurrezki gordinak balio absolutuan oso balio baxuak (oso negatiboak) izan ditu. Hori da, lehen esan bezala, aurrezki gordin erlatiboan nahiz biztanleko aurrezki gordina hain negatiboak izatearen arrazoia.

#### 4.7 Euskadiren kasua

Sarreran aipatu dudan bezala, aldagai honetan garbi ikusten da Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiekiko duen finantza menpekotasuna. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua harturik aurrezki gordina aztertzen badugu, Euskadiren egoera ez dela batere ona ondorioztatu dezakegu. Aurrez erantsitako 7. eta 8. taulatan ikus daitekeen bezala, 2013an Euskadi ez da okerren dauden autonomia erkidegoen artean aurkitzen, baina batz bestekoaren azpitik kokatzen da. Datuei dagokionez, 2008ko **aurrezki gordina balio erlatiboan** %6,95ekoa zen; %-15,74raino jaitsi zen 2009an eta azkenik, %1,65ekoa da 2013an. Antzekoa gertatzen da **biztanleko aurrezki gordinarekin**: 2008an 267,04€-takoa zen; -535,07€-takoa 2009an eta 61,94€ 2013an.

\*Jarraian dauden datuak, eranskin bezala ezarri dudan "Konparazioa 2" deituriko eranskinetik hartuak dira eta Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren datuak batzen dituen aurrekontu likidatua erabiliz eginiko Euskadiko kalkuluak dira:

URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	43,95%	31,38%	33,81%	35,56%	35,40%	37,38%

Iturria: Norberak egin EUSTATEko datuetan oinarrituta.

URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	2.802,17	1.799,04	1.983,72	2.166,38	2.139,46	2.203,44

Iturria: Norberak egin EUSTATEko datuetan oinarrituta.

Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren datuak batzen dituen aurrekontu likidatua erabiliz egiten baditugu kalkulu horiek, ikus daitekeen bezala, egoera guztiz ezberdin batean aurkitzen gara. Aurrezki gordinaren inguruko azterketa egitean, Euskadi gainontzeko Espainiako Autonomia Erkidegoak baino askoz hobeto dagoela islatzen da. Ezarritako taula horietan ikusten den bezala, 2008ko Euskadiko **aurrezki gordina balio erlatiboan** %43,95ekoa zen; honen balioa 2013an %37,38ra jaitsi da, baina hala ere, beste autonomia erkidegoena baino askoz ere balio altuagoa da. **Aurrezki gordina biztanleko** aztertzean ere, Euskadiko datuak beste autonomia erkidegoenak baino askoz hobekak dira: 2008ko biztanleko aurrezki gordina 2.802,17€-takoa zen; 2013an 2.203,44€-tara jaitsi da. Nahiz eta beherakada nabarmena izan, beste autonomia erkidegoena baino askoz ere altuagoa dela ikus daiteke.

Hori horrela izanik, garbi ikusten da egoera oso ezberdina dela Euskadin Foru Aldundiak kontutan hartu edo ez; Euskadik, alegia, arlo finantzarioari dagokionez, Foru Aldundien menpekotasun itzela duela esan daiteke, bestela, ahultasun egoeran egongo baitzen.

## 5 AURREZKI GARBIA

### 5.1 Definizioa

Autonomia erkidegoek, euren baliabideekin, inbertsioak finantzatzeko duen ahalmenaren berri ematen du. Hau aurreko kontzeptuarekin lotuta dago, izan ere, zama finantzarioa ordaindu ondoren inbertsioak finantzatzeko gelditzen den aurrezki gordinaren zatia da. Aurrezki garbiak positiboa izan behar du, bestela, autonomia erkidegoek duten diruzaintza gerakina negatiboa izango baita edota gastu arruntak kapital-sarreraren bitartez ariko lirateke finantzatzen.

### 5.2 Kalkuluak


- (1) Aurrezki gordina
- (2) Zama finantzarioa: gastuetako 3. Eta 9. Kapitulua
- (3) Aurrezki garbia, **balio absolutuan**: (1)-(2)
- (4) Sarrera arruntak
- Aurrezki garbia, **balio erlatiboan**: (3)/(4)\*100
- Aurrezki garbia, **biztanleko**: (3)/Biztanleria

### 5.3 Aurrezki garbia balio erlatiboan

14. Taula. Aurrezki garbia balio erlatiboan						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
CEUTA	2,91%	-2,04%	-3,36%	1,69%	-1,10%	4,61%
MELILLA	1,32%	1,14%	0,35%	-5,36%	0,93%	0,30%
KANTABRIA	12,99%	9,40%	-6,21%	-3,18%	-18,92%	-0,94%
EUSKADI	4,62%	-16,89%	-3,73%	-5,46%	-0,87%	-3,54%
GAZTELA ETA LEON	17,33%	14,28%	0,05%	-2,72%	-16,11%	-4,67%
NAFARROA	13,48%	12,48%	8,37%	6,15%	-2,11%	-5,31%
ASTURIAS	11,38%	6,82%	-1,25%	-8,51%	-14,99%	-6,20%
EXTREMADURA	7,88%	4,16%	-7,60%	-10,62%	-13,02%	-8,70%
ARAGOI	9,65%	2,43%	-8,64%	-14,07%	-14,70%	-9,43%
KANARIAK	4,29%	-0,17%	-16,53%	-9,68%	-23,66%	-10,87%
GALIZIA	12,41%	8,73%	-5,64%	-6,32%	-8,59%	-13,43%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>5,87%</b>	<b>0,90%</b>	<b>-8,26%</b>	<b>-11,74%</b>	<b>-18,40%</b>	<b>-14,75%</b>
MADRIL	-0,48%	-3,21%	-7,62%	-3,78%	-24,01%	-17,21%
BALEARRAK	-4,60%	-7,21%	-19,57%	-29,24%	-44,29%	-17,48%
BALENTZIA	4,51%	-3,53%	-10,30%	-14,98%	-30,73%	-19,43%
GAZTELA MANTXA	0,01%	-6,76%	-21,47%	-44,67%	-44,17%	-20,63%
ANDALUZIA	8,11%	4,44%	-3,13%	-8,36%	-20,02%	-20,82%
MURTZIA	3,83%	3,45%	-18,40%	-20,37%	-26,35%	-24,66%
ERRIOXA	7,86%	6,41%	-7,99%	1,48%	-9,33%	-43,90%
KATALUNIA	-6,05%	-16,79%	-24,33%	-45,16%	-37,54%	-57,93%

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

8. Grafikoa. Aurrezki garbia balio erlatiboan



Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Kasu honetan ere aurrezki garbiak sarrera arruntekiko duen portzentajea adierazten da. Adierazle hau 2013an positiboa duten bakarrak, 14. taula eta 8. grafikoa ikus daitekeen bezala, Ceuta eta Melilla dira, jarraian adieraziko dudan bezala, aurrezki garbia balio absolutuan positiboa duten bakarrak baitira.

**Ceuta**ren kasuan 2008an %2,91koa zen, ondorengo lau urteetan negatiboa izan da eta azken urtean, 2013an alegia, berriz ere gorakada bat izan du: %4,61era.

**Melilla**n 2008an %1,32ekoa zen; 2011ean %-5,36ra jaitsi zen eta 2013an, berriz ere positiboa da %0,30eko balioarekin.

Hala ere, bi autonomia erkidego horietan nahiz eta 2013an aurrezki garbia positiboa izan, honek sarrera arruntekiko duen portzentajea oso baxua dela ikus daiteke.

Ceuta eta Melillaren ondoren, 2013an aldagai honi dagokionez hoberen dauden Espainiako Autonomia Erkidegoak **Kantabria**, **Euskadi** eta **Gaztela eta Leon** dira, nahiz eta egoera ez izan batere ona. 14. taulan ikus daitekeen bezala, autonomia erkidego horietako 2013ko aurrezki garbia balio erlatiboan %-0,94, %-3,54 eta %-4,67 da hurrenez hurren.

**Balearrak**, nahiz eta 2013an ez egon posturik txarrean aldagai honi dagokionez, aurrezki gordina balio erlatiboan azertu dudanean izandako emaitzekin alderatuz oso emaitza txarrak dira hauek; arrazoia, ondoren adieraziko dudan bezala, zama finantzarioa Balearretan asko igo dela da azken urteotan eta honek, aldagai honen balioa asko jaitea ekarri du. Esan beharra dago, 2008an ere jada aldagai honi dagokionez egoera kaxkarra zela Balearretakoa, aurrezki garbia negatiboa baitzen. Datuei dagokionez, 2008an aurrezki garbia balio erlatiboan %-4,60 zen; 2012an %-44,29raino jaitsi zen eta 2013an, azkenik, %-17,48koa da bere balioa.

**Katalunia**n, hasteko, adierazle honen balioa negatiboa izan da aztertzen ari naizen urte

guztietan, aurrezki garbia negatiboa izan baita (aurrezki gordina bezalaxe) eta, gainera, ikaragarri jaitsi da adierazle honen balioa 2008tik 2013ra: %-6,05tik %-57,93ra. Kataluniak du 2013. urtean aurrezki garbia balio erlatiboan baxuena (negatiboena, alegia).

**Errioxa** da aldagai honen arabera okerren dagoen Espainiako bigarren Autonomia Erkidegoa eta beherakada itzela izan du gainera aldagai honek urte hauetan zehar; 2008an aurrezki garbia balio erlatiboan %7,86koa zen eta 2013an, berriz, %-43,90ekoa da.

**Murtzia** ere, aldagai honen arabera egoera kaxkarrean dagoela ikus daiteke (2013an %-24,66ko balioa du).


Aurrezki gordina balio erlatiboan nahiz biztanleko aztertzean, 2013. urtean okerren zeuden Espainiako Autonomia Erkidegoak **Gaztela Mantxa** eta **Balentzia** zirela aipatu dut. Puntu honetan aurrezki garbia balio erlatiboan aztertzean, ordea, badaudela beste autonomia erkidego batzuk okerrago ikusi dut. Honen arrazoia, geroago azalduko dudan bezala, zama finantzarioa da; izan ere, bi autonomia erkidego hauetan, beste batzuekin alderatuz, zama finantzarioa ez da hainbeste igo.

#### 5.4 Aurrezki garbia biztanleko

15. Taula. Aurrezki garbia biztanleko(€)						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
CEUTA	76,39	-56,84	-86,94	42,03	-27,93	117,78
MELILLA	32,49	29,88	8,87	-126,17	23,13	7,23
KANTABRIA	473,41	345,99	-194,86	-98,41	-577,31	-29,89
GAZTELA ETA LEON	617,61	519,62	1,77	-81,68	-498,71	-126,92
EUSKADI	177,56	-574,32	-142,89	-210,89	-34,96	-132,74
ASTURIAS	385,02	235,85	-37,87	-249,27	-445,16	-184,20
ARAGOI	334,05	88,30	-274,85	-433,75	-442,25	-252,00
EXTREMADURA	331,63	172,86	-279,90	-370,19	-435,14	-258,17
NAFARROA	826,98	758,12	491,71	336,87	-104,18	-262,15
KANARIAK	133,78	-5,58	-462,79	-256,30	-588,09	-275,29
GALIZIA	454,89	319,14	-176,47	-170,55	-228,49	-363,20
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>226,16</b>	<b>57,76</b>	<b>-223,09</b>	<b>-310,61</b>	<b>-496,69</b>	<b>-387,57</b>
MADRIL	-12,52	-90,06	-187,70	-92,75	-583,45	-398,22
BALENTZIA	117,72	-94,02	-243,36	-330,46	-656,21	-412,50
BALEARRAK	-121,56	-183,76	-452,11	-587,86	-1.032,48	-423,29
ANDALUZIA	282,27	154,38	-94,89	-242,17	-549,17	-479,49
GAZTELA MANTXA	0,40	-260,46	-660,37	-1.285,13	-1.231,97	-486,60
MURTZIA	107,87	99,86	-452,86	-474,18	-588,82	-562,14
ERRIOXA	277,14	231,44	-248,94	48,09	-294,28	-1.328,11
KATALUNIA	-198,08	-592,93	-744,33	-1.318,90	-1.141,61	-1.513,83

Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.

9. Grafikoa. Aurrezki garbia biztanleko (€)



Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.

**Ceutan** bakarrik izan da 2013ko biztanleko aurrezki garbia 2008koa baino altuagoa; 2008an biztanleko aurrezki garbia 76,39€-takoa zen eta 2013an, berriz, 117,78€-takoa da. Esan beharra dago tartean gora beherak egon direla eta 15. taula eta 9. grafikoa ikusten den bezala, hainbat urtetan negatibo izatera ere iritsi dela.

**Melillaren** kasuan, 2008an 32,49€ izatetik 2013an 7,23€-tara jaitsi da; nahiz eta oso balio baxua izan, positiboa dela aipatzekoa da. Izan ere, gainontzeko Espainiako Autonomia Erkidegoetan biztanleko aurrezki garbia negatiboa da 2013. urtean, aurrez esan bezala, guztietan aurrezki garbia negatiboa baita.

Kasu honetan ere, Ceuta eta Melillaren ondoren, 2013an biztanleko aurrezki garbi altuena duten autonomia erkidegoak (nahiz eta negatiboa izan) Kantabria, Gaztela eta Leon eta Euskadi (Eusko Jurlaritzako aurrekontuan oinarrituz) dira. 2013ko balioak ondorengoak dira: **Kantabria**: -29,89€/biztanleko, **Gaztela eta Leon**: -126,92€/biztanleko eta **Euskadi**: -132,74€/biztanleko.

**Balearrei** dagokionez, hemen ere, noski, aipatzekoa da 2013. urteari erreferentzia eginez, biztanleko aurrezki gordinen izandako emaitzekin alderatuz, oso emaitza kaxkarrak irteren direla; honen arrazoia zama finantzarioa handia izatea da. 2008tik hasi eta 2013ra bitartean, urtero urtero aurrezki garbia biztanleko negatiboa izan da Balearretan: -121,56€-takoa zen 2008an, -1.032,48€-taraino jaitsi zen 2012an eta, azkenik, -432,29€-takoa izan da 2013an.

Aurrezki garbia balio erlatiboan aztertzean gertatzen zen bezalaxe, 2013an biztanleko aurrezki garbi negatiboena duen autonomia erkidegoa **Katalunia** da. Hau ere negatiboa izan da urtero, baina beherakada itzela egon da: -198,08€ izatetik (2008an) -1.513,83€-taraino jaitsi da (2013an).

**Errioxak** izan du beherakada handiena, biztanleko aurrezki garbia 2008an 277,14€-




takoa baitzen eta -1.328,11€-takoa, berriz, 2013an. Kataluniaren ondoren, biztanleko aurrezki garbi negatiboena duen autonomia erkidegoa da Errioxa.

**Murtzia** ere, nahiz eta aurreko bi autonomia erkidegoak baino zertxobait hobeto egon, oso egoera kaxkarrean aurkitzen dela 2013an ikus daiteke, aurrezki garbia biztanleko -562,14€-takoa baita.

**Balentzia eta Gaztela Mantxan** ere emaitzak ez dira askoz hobekak, biztanleko aurrezki garbia 2013an -412,50€-takoa eta -486,60€-takoa baita autonomia erkidego horietan hurrenez hurren; baina aurrezki gordinetan gertatzen ez zen bezalaxe, kasu honetan badaudela hainbat Espainiako Autonomia Erkidego okerrago ikus daiteke.

### 5.5 Aurrezki garbiaren hazkundera 2008-2013 epean



Aurrezki Garbia 2013an positiboa duten bakarrak Ceuta eta Melilla dira.

**Ceuta**ren kasuan, nahiz eta tarteko urteetan gora beherak izan, 2013an bere balioa 2008koa baino %69,71 altuagoa da.

**Melilla**ren kasuan, aldiz, nahiz eta oraindik ere positiboa izan, 2013an dagoen aurrezki garbia balio absolutuan 2008an zegoena baino %74,56 baxuagoa da.

Bi autonomia erkidego horietan, beraz, aurrezki garbia positiboa izatean, zama finantzarioa ordaindu ondoren, oraindik ere inbertsioak autofinantzatzeko aurrezki gordinaren zati bat gelditzen dela esan nahi du, baina hala ere oso kantitate txikia dela aipatu beharra dago.

Gainontzeko Espainiako Autonomia Erkidegoetan aurrezki garbia balio absolutuan negatiboa da 2013. urtean; honek esan nahi du, aurrezki gordinarekin ezin dutela zama finantzarioa ordaindu eta are gutxiago, noski, inbertsioak autofinantzatu. 2013ko aurrezki garbia balio absolutuan 2008koa baino baxuagoa da autonomia erkidego guzti horietan.

**Balearetan**, 2013ko aurrezki gordina 2008koa baino handiagoa dela aipatu dut lehen;

hemen ikusten den bezala, aldiz, 2013ko aurrezki garbia balio absolutuan 2008koa baino dezentez baxuagoa da (%263,06 baxuagoa), negatibo izatera iritsiz, izan ere, zama finantzarioa asko igo da azken urteotan.


**Gaztela Mantxaren** kasuan ere aurrezki garbiaren balioa ikaragarri jaitsi dela ikus daiteke 16. taula eta 10.grafikoan, 2013an dagoen aurrezki garbi absolutua, 2008koa baino %120.769,11 baxuagoa da zehazki.

**Madrilen** kasuan ere asko jaitsi da, zehazki, 2013. urtean bere balioa 2008koa baino %3.105,40 baxuagoa izan da.

**Errioxa, Murtzia** eta **Kataluniaren** kasuan ere, nahiz eta aipaturiko bi autonomia erkidegoekin konparatuz ez izan hain nabarmena, 2013ko aurrezki garbia balio absolutuan 2008koa baino askoz ere baxuagoa dela ikus daiteke (%572,38, %628,38 eta %663,12 baxuagoa hurrenez hurren).

16. Taula eta 9. grafikoari erreparatuz, nabarmen ikusten da batz bestekoaren balioa Gaztela Mantxaren kasuak asko aldatzen duela. Izan ere, nahiz eta 2013ko aurrezki garbia balio absolutuan 2008koa baino dezentez baxuagoa izan orokorrean autonomia erkidego guztietan, ez da inon (Gaztela Mantxan izan ezik) batz bestekoak adierazten duenaren adinako ezberdintasunik egon.

## 5.6 Zama finantzarioaren hazkundera 2008-2013 epean



Jarraian, 17. taula eta 11. grafikoko datuetan oinarrituz, Espainiako Autonomia Erkidegoetako zama finantzarioaren hazkundera aztertuko dut, 2013an dagoena 2008an zegoenarekin alderatuz.

2013an, autonomia erkidego guztietan dagoen zama finantzarioa handiagoa da 2008an zegoena baino.

**Melilla** eta **Ceutan** izan du ordea gorakada txikiena, 2013ko zama finantzarioa 2008koa baino %46,41 eta %87,01 handiagoa baita hurrenez hurren autonomia erkidego

horietan.

**Balearretan** aldiz, lehen esan bezala, 2013an dagoen zama finantzarioa 2008an zegoena baino askoz ere handiagoa da, %539,72 handiagoa zehazki, eta horregatik daude horrelako emaitza ezberdinak aurrezki gordina eta garbiari dagokionez.

**Errioxaren** kasuan, aurrezki gordina aztertzean ez ziren hain emaitza kaxkarrak irteten, baina aurrezki garbia aztertzean gauzak asko aldatu dira (aurrezki garbia sarrera arruntekiko nahiz biztanleko aztertzean, 2013an okerren dagoen bigarren autonomia erkidegoa dela esan dut). Honen arrazoia zama finantzarioak izan duen ikaragarritzko igoera izan da: 2013ko zama finantzarioa %1.583,30 handiagoa da 2008koa baino.

**Murtzian** ere, 17. taulan ikusten den bezala, 2013ko zama finantzarioa 2008koa baino askoz ere handiagoa da, zehazki, %1.334,54 handiagoa.

**Katalunian** eta **Nafarroan** ere, nahiz eta aurreko bi kasutan baino gutxiago, zama finantzarioa asko igo dela aipatu beharra dago (2013an dagoen zama finantzarioa 2008an zegoena baino %699,99 eta %875,97 handiagoa da hurrenez hurren autonomia erkidego horietan), eta hori da aurrezki garbiari dagokionez 2013an egoera larri horretan aurkitzearen arrazoia.

**Gaztela Mantxa eta Balentziaren** kasuan, beste autonomia erkidego batzuekin alderatuz urte hauetan zama finantzarioa ez dela hainbeste igo ikus daiteke (nahiz eta oso gorakada handia izan); Gaztela Mantxaren kasuan 2013ko bere balioa 2008koa baino %213,37 handiagoa da eta Balentziaren kasuan %179,02 handiagoa. Horregatik irteten dira aurrezki garbiaren azterketan, aurrezki gordinari dagokionez baino emaitza zertxobait hobeak.

## 5.7 Euskadiren kasua

Euskadiren kasuan, aurrezki garbia aztertzean, aurrezki gordinaren azterketan gertatzen zen antzekoa gertatzen da.

\*Jarraian dauden datuak, eranskin bezala ezarri dudan "Konparazioa 2" deituriko eranskinetik hartuak dira eta Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren datuak batzen dituen aurrekontu likidatua erabiliz eginiko Euskadiko kalkuluak dira:

18. Taula. Aurrezki garbia balio erlatiboan -Euskadi-						
URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	42,54%	30,69%	32,21%	33,14%	32,58%	34,08%
Iturria: Norberak egin EUSTATEko datuetan oinarrituta.						
19. Taula. Aurrezki garbia biztanleko (€) -Euskadi-						
URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	2.712,69	1.759,79	1.889,78	2.019,36	1.968,97	2.008,75
Iturria: Norberak egin EUSTATEko datuetan oinarrituta.						

Aurrez ezarri dudan 14. taulan azaltzen zen bezala, Eusko Jaurlaritzako aurrekontu likidatuarekin eginez gero kalkuluak, 2008ko **aurrezki garbia balio erlatiboan** %4,62koa zen; %-16,89raino jaitsi zen 2009an eta %-3,54koa da bere balioa 2013an. Honi dagokionez, beraz, 2013an ez da hoberen dagoen Espainiako Autonomia Erkidegoa

baina batz bestekoaren gaintik kokatzen da.

Hiru Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza batzen dituen aurrekontua erabiliz gero, aldiz, oraintxe ezarri dudan 18. taulan agertzen den bezala, aldagai honen balioa 2008an %42,54koa zen eta %34,08koa 2013an. Bigarren kasu honetan, beraz, gainontzeko autonomia erkidegoenak baino askoz ere datu hobek islatzen dira.

**Biztanleko aurrezki garbiaren** kasuan ere, datuek ondorio berdinetara eramaten gaituzte: lehenengo kasuan, aurrez ezarritako 15. taulan adierazten den bezala, biztanleko aurrezki gordina 2008an 177,56€-takoa zen eta -132,74€-takoa 2013an (baliorik baxuena 2012an izan zuen: -574,32€).

Bigarren kasuan aldiz, puntu honetako 19. taulan agertzen den bezala, 2008ko biztanleko aurrezki garbia 2.712,69€-takoa zen eta 2.008,75€-takoa 2013an. Datu hauek Espainiako beste Autonomia Erkidegoenak baino askoz hobek direla ikus daiteke adierazitako taula horietan. Hemen ere, beraz, 2013ko Euskadiko egoera 2008koa baino kaxkarragoa dela ondoriozta daiteke, baina Espainiako beste Autonomia Erkidegoena baino askoz ere hobea. Azken finean, lehen esan bezalaxe, Foru Aldundirik gabe Euskadiren egoeran oso ezberdina dela ikusten da.

## 6 LEGEZKO ZORPETZE-MAILA

### 6.1 Definizioa

Kontzeptu hau aurrekoarekin lotuta dago, izan ere, zama finantzarioa ordaintzeko erabilitako sarrera arrunten zatia adierazten du, ehunekotan.

### 6.2 Kalkuluak

- (1) Zama finantzarioa, **balio absolutuan**
- (2) Sarrera arruntak
- **Legezko zorpetze-maila:**  $(1)/(2)*100$


### 6.3 Legezko zorpetze-maila

Zama finantzarioak sarrera arrunten zein portzentaje suposatzen duen aztertzen da kasu honetan.

20. Taula. Legezko zorpetze-maila

URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
KATALUNIA	5,52%	8,19%	11,84%	28,73%	34,58%	55,44%
ERRIOXA	2,31%	2,06%	2,49%	5,08%	8,15%	46,03%
BALEARRAK	3,99%	5,64%	6,13%	15,25%	27,62%	26,69%
MURTZIA	1,20%	2,96%	3,90%	5,39%	17,58%	20,88%
MADRIL	4,50%	6,97%	6,21%	8,38%	12,81%	20,23%
GALIZIA	4,76%	3,52%	7,40%	8,47%	10,41%	17,89%
ANDALUZIA	3,93%	4,39%	5,87%	6,73%	10,56%	17,38%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>3,51%</b>	<b>3,63%</b>	<b>5,51%</b>	<b>7,87%</b>	<b>13,57%</b>	<b>17,34%</b>
GAZTELA MANTXA	3,05%	2,00%	5,31%	7,73%	40,56%	15,15%
ARAGOI	3,12%	2,89%	6,51%	6,40%	10,05%	13,72%
BALENTZIA	3,67%	4,85%	5,21%	6,98%	10,38%	12,68%
CEUTA	6,46%	5,59%	5,57%	7,38%	10,32%	11,26%
ASTURIAS	2,87%	2,75%	3,26%	5,80%	8,53%	10,73%
GAZTELA ETA LEON	1,99%	1,89%	2,88%	4,25%	6,68%	10,60%
KANARIAK	4,50%	3,78%	13,18%	7,22%	16,24%	10,27%
NAFARROA	0,80%	0,91%	3,87%	4,24%	6,35%	9,57%
EXTREMADURA	2,20%	2,19%	3,40%	5,05%	6,55%	9,31%
KANTABRIA	3,77%	2,44%	2,57%	4,54%	7,53%	8,88%
MELILLA	5,79%	4,88%	6,60%	8,01%	8,72%	7,50%
EUSKADI	2,33%	1,15%	2,45%	3,81%	4,22%	5,19%

Iturria: Norberak egin MINHAPeko datuetan oinarrituta.



Hasteko, aipatzeko da, Espainiako Autonomia Erkidego guztietako 2013ko zorpetze-maila, 2008koa baino altuagoa dela.

20. taula eta 12. grafikoan adierazten den bezala, 2013an legezko zorpetze-maila altuena duen autonomia erkidegoa **Katalunia** da, zehazki, sarrera arrunten %55,44a erabiltzen du zama finantzarioa ordaintzeko. Esan beharra dago, 2008an ere legezko

zorpetze-maila altuenetakoa zuen autonomia erkidegoa zela (%5,52) baina ikusten den bezala, ehuneko hau ikaragarri igo da urte hauetan zehar. Honen arrazoa, alde batetik, lehen esan bezala, 2013ko zama finantzarioa 2008koa baino askoz altuagoa dela da eta bestalde, gainera, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino askoz ere baxuagoak direla.

**Errioxaren** kasuan, 2008an legezko zorpetze-maila %2,31koa zen eta 2013an, legezko zorpetze-maila altuena duen Espainiako bigarren Autonomia Erkidegoa da, %43,72raino igo baita zehazki. Honen arrazoa, alde batetik sarrera arrunten jaitsiera da, baina, batik bat, 2013an dagoen ikaragarritzko zama finantzarioa da arrazoa. Izan ere, aurreko puntuan adierazi dudan bezala, Errioxako 2013ko zama finantzarioa 2008koa baino %1.583,30 handiagoa da.

**Balearretan** ere asko igo da legezko zorpetze-maila aztertzen ari naizen urte hauetan, %3,99tik %26,69raino hain zuzen ere. Kasu honetan ere, igoera hau, aurrez erantsitako 17. taula eta 11. grafikoan ikus daitekeen bezala, zama finantzarioaren igoeragatik gertatu da, nahiz eta sarrera arrunten jaitsierak ere apur bat eragin duen.

**Melillaren** kasuan apenas igo da legezko zorpetze-maila bost urte hauetan, %5,79tik %7,50era, zehazki. Honen arrazoa, alde batetik, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino handiagoak izatea da (%13,07 handiagoak) eta bestalde, aipatu behar da baita ere, beste autonomia erkidegoekin alderatuz, nahiz eta 2013koa handiagoa izan, ez dagoela hainbesteko ezberdintasunik 2013ko zama finantzarioa eta 2008koaren artean (2013koa %46,41 handiagoa da).

**Kantabria** da 2013an legezko zorpetze-maila baxuena duen hirugarren autonomia erkidegoa, zehazki, bere sarrera arrunten %8,88a erabiltzen du zama finantzarioa ordaintzeko; hala ere, 2008an %3,77a erabiltzen zuela aipatu behar da.

#### 6.4 Euskadiren kasua

20. taula eta 12. grafikoan ikus daitekeen bezala, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua erabiliz eginiko kalkuluetan oinarrituz, **Euskadi** da 2013an legezko zorpetze-mailarik baxuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa. Zehazki, sarrera arrunten %5,19 bideratzen du zama finantzarioa ordaintzera. 2008an are baxuagoa zen ehuneko hau (%2,33). Igoera hau ez da beste hainbat autonomia erkidegoetan izandakoaren adinakoa izan, sarrera arruntak ez direlako asko jaitsi (10. taulan ikusten den bezala: 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino %2,60 baxuagoak dira) eta zama finantzarioa, aldiz, nahiz eta nabarmen igo den, ez delako beste hainbat autonomia erkidegoetan bezain beste igo (2013ko zama finantzarioa 2008koa baino %116,89 handiagoa da)

Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontu likidatua erabiliz eginez gero kalkulu hauek, ondorio berdinetara iristen gara, nahiz eta "Konparazioa 2" deituriko eranskinetik hartuta dagoen jarraian erantsitako taulan ikusten den bezala, kasu honetan, legezko zorpetze-mailak oraindik eta balio baxuagoak izan.

21. Taula. Legezko zorpetze-maila -Euskadi-						
URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	1,40%	0,68%	1,60%	2,41%	2,82%	3,30%

Iturria: Norberak egina EUSTATEko datuetan oinarrituta.

Taula horretako portzentajeei begiratuz ere, Euskadi dela 2013an legezko zorpetze-

maila baxuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa esan daiteke (%3,30eko balioa du zehazki). 2008an portzentaje hau are baxuagoa zen (%1,40).

Bigarren aurrekontu hau erabiliz portzentaje baxuagoak irtetea logikoa da, izan ere, bi kasutan zama finantzarioa berdina da, baina lehenengo kasuan Eusko Jaurlaritzaren sarrera arruntak soilik hartzen dira kontuan eta bigarrengoan, aldiz, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundienak; beraz, bigarren kasuan sarrerak gehiago izango dira eta ondorioz, portzentajeak jaitsi egiten dira.

## 7 ZORPETZE-MUGA

### 7.1 Definizioa

Kontzeptu hau ere aurrezki garbiarekin oso lotuta dago, izan ere, honek ere zama finantzarioa ordaindu ondoren gelditzen den aurrezki gordinaren zatia adierazten du baina ehunekotan, hau da, autofinantzaketa adierazten du.

### 7.2 Kalkuluak

- (1) Zama finantzarioa, **balio absolutuan**
- (2) Aurrezki gordina
- Zorpetze muga, **balio erlatiboan**:  $100 - ((1)/(2) * 100)$

OHARRA: Aurrezki gordina negatiboa denean edota zama finantzarioa aurrezki gordina baino handiagoa denean zorpetze-muga zero izango da.


### 7.3 Zorpetze-muga

Esan bezala, zama finantzarioa ordaindu ondoren gelditzen den aurrezki gordinaren zatia adierazten da baina ehunekotan.

22. Taula. Zorpetze-muga						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
CEUTA	31,07%	0,00%	0,00%	18,59%	0,00%	29,03%
MELILLA	18,58%	18,96%	5,04%	0,00%	9,65%	3,81%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>53,09%</b>	<b>37,55%</b>	<b>3,96%</b>	<b>5,28%</b>	<b>0,51%</b>	<b>1,73%</b>
ANDALUZIA	67,37%	50,29%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
ARAGOI	75,56%	45,74%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
ASTURIAS	79,87%	71,26%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
BALEARRAK	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
KANARIAK	48,82%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
KANTABRIA	77,51%	79,40%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
GAZTELA ETA LEON	89,69%	88,30%	1,86%	0,00%	0,00%	0,00%
GAZTELA MANTXA	0,35%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
KATALUNIA	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
BALENTZIA	55,09%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
EXTREMADURA	78,15%	65,46%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
GALIZIA	72,29%	71,27%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
MADRIL	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
MURTZIA	76,23%	53,82%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
NAFARROA	94,40%	93,18%	68,36%	59,16%	0,00%	0,00%
EUSKADI	66,49%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
ERRIOXA	77,26%	75,68%	0,00%	22,61%	0,00%	0,00%

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

13. Grafikoa. Zorpetze-muga



Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Ikusten den bezala, 2013. urtean Ceuta eta Melillan izan ezik, gainontzeko autonomia erkidegoetan zorpetze-muga 0 da.

**Ceutaren** kasuan, 2008an %31,07koa zen aldagai hau; ondoren, aipatzekoa da 2009, 2010 eta 2012. urteetan zorpetze-muga 0 izan zela baina 2013an, ordea, %29,03raino igo da berriz ere.

**Melillaren** kasuan, tartean hainbat gorabehera egon dira, baina 2008an %18,58 izatetik 2013an %3,81 izateraino jaitsi da. Jaitsiera honen arrazoia, 2013ko zama finantzarioa 2008koa baino handiagoa izatea da; aipatzekoa da 2013ko aurrezki gordina ere 2008koa baino handiagoa dela, baina zama finantzarioa proportzio handiago batean igo da.

**Nafarroa** zen 2008an zorpetze-muga altuena zuen Espainiako Autonomia Erkidegoa: %94,40koa zen. Hurrengo urteetan jaisten joan zen baina positibo mantendu zen 2011erarte. Hurrengo bi urteetan ordea bere balioa 0 izan da, nahiz eta aurrezki gordina positiboa izan, zama finantzarioa aurrezki gordina baino handiagoa izan baita.

**Gaztela eta Leonen** kasuan, adibidez, ikusten da 2008ko zorpetze-muga Ceuta eta Melillakoa baino askoz ere altuagoa zela, %89,69koa zehazki. Honek positiboa izaten jarraitu zuen 2010eraino baina hortik aurrera bere balioa 0 izan da, izan ere azken urteetako zama finantzarioa aurrezki gordina baino handiagoa izan da (2012an, gainera, aurrezki gordina negatibo izatera iritsi zen).

Beste Espainiako hainbat Autonomia Erkidegoetan ere berdina gertatzen da, hau da, 2008an zorpetze-muga oso altua izatetik, 0 izateraino jaisten da 2013an.

**Balearretan, Katalunian eta Madrilen** 2008tik hasi eta 2013raino aldagai honen balioa 0 izan dela aipatu beharra dago, izan ere, autonomia erkidego hauetan urtero urtero zama finantzarioa aurrezki gordina baino handiagoa izan da (hainbat kasutan aurrezki



gordina negatibo izatera ere iritsi da). **Gaztela Mantxaren** kasuan, 2008an %0,35ekoa izan zen, baina gainontzeko urteetan, aldiz, 0.

Hemen ikusten da, beraz, 2008an Espainiako Autonomia Erkidego gehienak, aldagai honi dagokionez Ceuta eta Melilla baino askoz hobeto zeudela; 2013an, ordea, krisia dela eta asko txartu da euren egoera eta Ceuta eta Melillan, aldiz, krisiak ez du hainbesteko eragina izan aldagai honi dagokionez.

#### 7.4 Euskadiren kasua

Hemen ere, Eusko Jaurlaritzako datuak erabili edo Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontua erabili, emaitza oso ezberdinak lortzen dira. Lehenengo kasuan, hau da, Eusko Jaurlaritzako aurrekontu likidatua erabiliz, 22. taulan adierazten den bezala 2008ko Euskadiko zorpetze-muga % 66,49koa da eta gainontzeko urte guztietan, berriz, %0 da. Alegia, Espainiako beste Autonomia Erkidego gehienetan gertatzen den bezala, Euskadik ere ez dauka dirurik zama finantzario guztia ordaintzeko eta noski, orduan, ez zaio ezer gelditzen inbertsioak autofinantzatzeko.

\*Jarraian dagoen taula, "Konparazioa 2" deituriko eranskinetik hartutako datuekin dago osatua eta Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontu likidatua erabiliz eginiko kalkuluak dira. Euskadiko hainbat urteetako zorpetze-muga adierazten du.

23. Taula. Zorpetze-muga -Euskadi -						
URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	96,81%	97,82%	95,26%	93,21%	92,03%	91,16%
Iturria: Norberak egin EUSTATEko datuetan oinarrituta.						

Datu hauek erabiliz gero, emaitza oso onak irteten direla Euskadin ikus daiteke; 2008ko zorpetze muga %96,81ekoa zela kalkulatu dut; hurrengo urteetan gora beherak egon dira eta azkenik, 2013an %91,16ra jaitsi da zorpetze-muga. 2008tik 2013ra beherakada bat egon da baina hala ere, honen arabera, 2013an Euskadin, zama finantzarioa ordaindu ondoren, oraindik ere aurrezki gordinaren %91,16a gelditzen da autofinantzaketarako.

Datu batzuetatik bestera horrelako ezberdintasuna egotearen arrazoia aurrezki gordina da. Izan ere, zama finantzarioa berdina da bi kasutan baina aurrezki gordinari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako datuak soilik erabiltzean oso aurrezki gordin baxua irteten da ( urte batzuetan negatiboa izanik) baina Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundien datuak batuz, aldiz, aurrezki gordinak balio oso altuak ditu. Hemen ere, beraz, oso garbi ikusten da Eusko Jaurlaritzak eta beraz, Euskadik, finantza ikuspuntutik hiru Foru Aldundiekiko duen menpekotasuna.

## 8 ZOR BIZIA

### 8.1 Definizioa

Zor biziak, autonomia erkidego batek hitzartutako epe luzeko maileguetatik ( erabiliak nahiz ez) amortizatu gabe dagoen zatia adierazten du, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31a erreferentziazat harturik; hau da, hitzartutako epe luzeko maileguetatik ordaindu

gabe dagoen zatia. Lehendabizi, Zor bizi honek sarrera arruntekiko duen erlazioa aztertuko dut eta biztanleriarekiko duen erlazioa ondoren.

## 8.2 Kalkuluak


- (1) Zor bizia, **balio absolutuan**: Hitzartutako zorretik amortizatu gabe dagoen zenbatekoa abenduaren 31n.
- (2) Sarrera arruntak
- Zor bizia, **balio erlatiboa**: (1)/(2)\*100
- Zor bizia, **biztanleko**: (1)/Biztanleria

## 8.3 Zor bizia balio erlatiboan

24. Taula. Zor bizia balio erlatiboan						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
ARAGOI	175,10%	206,21%	293,88%	357,14%	523,13%	686,87%
BALENTZIA	105,27%	121,35%	170,32%	197,76%	282,36%	308,53%
KATALUNIA	85,65%	97,36%	155,38%	200,92%	230,12%	300,22%
BALEARRAK	95,40%	129,37%	176,73%	215,71%	236,86%	254,74%
GAZTELA MANTXA	33,24%	53,37%	94,65%	113,65%	174,43%	231,70%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>47,65%</b>	<b>62,35%</b>	<b>91,71%</b>	<b>112,44%</b>	<b>149,17%</b>	<b>176,44%</b>
MURTZIA	18,61%	31,85%	58,67%	82,44%	141,69%	166,37%
MADRIL	63,66%	66,96%	85,73%	98,20%	129,15%	149,74%
ANDALUZIA	28,49%	34,95%	49,66%	60,95%	91,51%	126,49%
GAZTELA ETA LEON	28,70%	34,82%	56,02%	76,17%	101,77%	125,70%
GALIZIA	38,97%	47,96%	71,31%	94,64%	113,29%	124,04%
ERRIOXA	34,87%	43,89%	72,67%	86,46%	103,95%	119,86%
KANTABRIA	23,98%	30,55%	53,53%	70,48%	112,85%	116,00%
CEUTA	42,54%	88,50%	94,98%	99,07%	125,55%	111,19%
EUSKADI	12,06%	35,94%	60,55%	66,25%	82,55%	101,79%
NAFARROA	22,55%	28,21%	45,16%	69,76%	90,28%	99,86%
KANARIAK	29,86%	34,78%	57,03%	67,32%	89,56%	98,62%
ASTURIAS	21,14%	29,00%	52,05%	68,45%	84,33%	97,07%
EXTREMADURA	19,63%	23,75%	43,02%	52,49%	66,22%	80,85%
MELILLA	25,70%	45,85%	51,19%	58,59%	54,66%	52,78%

Iturria: Norberak egina MINHAP eta Banco de Españako datuetan oinarrituta.

14. Grafikoa. Zor bizia balio erlatiboan



Iturria: Norberak egina MINHAP eta Banco de Españaکو datuetan oinarrituta.

Erantsitako taula eta grafiko horietan ikusten den bezala, Espainiako Autonomia Erkidego guztietan 2013ko aldagai honen balioa 2008koa baino dezentez altuagoa da.

2013an **Aragoi** da zor bizia balio erlatiboan altuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa, gainera, 2008tik 2013ra igoera ikaragarria izan duela esan beharra dago: %175,10 izatetik %686,87raino. Egia da, baita ere, 2008an ere Aragoi zela zor bizi altuena zuen autonomia erkidegoa. Honek esan nahi du, 2013an Aragoiko Autonomia Erkidegoak hitzartutako epe luzeko maileguetatik amortizatu gabe dituenak sarrera arrunten %686,67a direla; hau da, hitzartutako epe luzeko maileguei aurre egiteko, dituen sarrera arruntak baino ia zazpi aldiz gehiago behar dituela. Igoera honen arrazoiak, alde batetik sarrera arrunten jaitsiera izan da, baina, batik bat, jarraian adieraziko dudak bezala, zor bizia balio absolutuan 2008tik 2013ra bikoiztu egin dela da.

**Balentiaren** kasuan ere, nahiz eta ez izan Aragoi bezain altua, 2013an zor biziak sarrera arruntekiko duen portzentajea oso altua da: %308,53 zehazki (%105,27koa zen 2008an).

**Kataluniaren** kasuan ere egoera ez da askoz hobea, aldagai honen balioa 2008an %85,65koa baitzen eta %300,22koa berriz, 2013an.

Balentzia eta Kataluniaren kasuan ere, zor bizia balio erlatiboan igotzearen arrazoiak, alde batetik sarrera arrunten jaitsiera eta bestalde eta batik bat, zor bizia balio absolutuan 2013an 2008an baino askoz ere handiagoa izatea da.

2013an zor bizia balio erlatiboan baxuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa **Melilla** da, %52,78koa da zehazki (2008an bere balioa erdia zen: %25,70). Hala ere, nahiz eta aldagai honi dagokionez 2013an Espainiako hoberen dagoen Autonomia Erkidegoa izan, 2013an sarrera arrunten ia %53a epe luzeko maileguak ordaintzera

bideratu behar ditu, hau da, sarrera arrunten erdia baino gehiago.

**Extremadura** da 2013an zor bizia balio erlatiboan baxuena duen Espainiako bigarren Autonomia Erkidegoa, baina hala ere, izan duen gorakada nabarmentzekoa da: 2008an %19,63 izatetik %80,85 izateraino iritsi baita 2013an.


Bi autonomia erkidego hauetan ere, nahiz eta aurrez aipaturikoetan baino askoz ere gutxiago, 2008tik 2013ra sarrera arruntak jaitsi eta zor bizia balio absolutuan igo egin dela esan beharra dago (jarraian erantsita dagoen 27. taula eta 17. grafikoan ikus daitekeen bezala).

#### 8.4 Zor bizia biztanleko

25. Taula. Zor bizia biztanleko (€)						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
ARAGOI	6.064,29	7.485,58	9.343,97	11.008,42	15.739,28	18.358,73
KATALUNIA	2.803,92	3.438,21	4.753,08	5.867,60	6.998,47	7.844,81
BALENTZIA	2.749,50	3.229,30	4.024,44	4.363,58	6.028,65	6.548,87
BALEARRAK	2.519,24	3.295,24	4.083,70	4.337,18	5.521,95	6.169,34
GAZTELA MANTXA	1.250,47	2.057,12	2.910,83	3.269,80	4.865,38	5.465,99
NAFARROA	1.383,76	1.714,01	2.654,22	3.821,74	4.455,75	4.927,33
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>1.536,19</b>	<b>2.052,27</b>	<b>2.719,21</b>	<b>3.190,32</b>	<b>4.217,63</b>	<b>4.700,62</b>
EUSKADI	463,18	1.221,82	2.322,35	2.559,17	3.334,40	3.820,66
MURTZIA	523,66	921,88	1.444,06	1.919,38	3.165,55	3.791,89
KANTABRIA	874,02	1.124,86	1.678,87	2.182,69	3.443,85	3.706,09
ERRIOXA	1.228,95	1.584,68	2.262,74	2.804,17	3.279,57	3.626,00
MADRIL	1.664,30	1.880,75	2.111,74	2.406,32	3.138,10	3.465,50
GAZTELA ETA LEON	1.023,08	1.266,78	1.819,05	2.287,15	3.149,86	3.416,69
GALIZIA	1.428,74	1.752,60	2.231,54	2.553,83	3.013,79	3.353,20
ANDALUZIA	991,48	1.215,80	1.507,67	1.765,74	2.509,66	2.913,50
ASTURIAS	715,43	1.002,69	1.581,04	2.005,95	2.505,15	2.882,03
CEUTA	1.115,44	2.463,82	2.457,91	2.470,64	3.188,55	2.842,50
KANARIAK	930,64	1.150,03	1.597,19	1.782,42	2.226,36	2.497,11
EXTREMADURA	825,80	987,63	1.584,87	1.830,05	2.212,60	2.398,71
MELILLA	631,64	1.200,38	1.295,68	1.380,19	1.357,99	1.282,72

Iturria: Norberak egin INE, MINHAP eta Banco de Españaکو datuetan oinarrituta.

15. Grafikoa. Zor bizia biztanleko (€)



Iturria: Norberak egina INE, MINHAP eta Banco de Españako datuetan oinarrituta.

**Aragoi** da, zor bizia balio erlatiboan aztertzean gertatzen zen bezalaxe, 2013. urtean biztanleko zor bizi altuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa: 18.358,73€-takoa baita. Hala ere, 2008ko Aragoiko biztanleko zor bizia ere oso altua zela aipatu beharra dago: 6.064,29€-takoa (2013an, hala ere, hirukoitza dela esan beharra dago).

Honek esan nahi du, 2013. urtean Aragoiko biztanleriak, zor biziari aurre egin ahal izateko, teorian, batz bestea 18.358,73€ ordaindu beharko lituzketela.

**Katalunia** da zor bizia biztanleko altuena duen bigarren Espainiako Autonomia Erkidegoa, bai 2008an eta baita 2013an ere, 2.803,92€/biztanleko 2008an eta 7.844,81€-takoa 2013. urtean.

**Balentiako** zifrak ere aurrekoaren antzekoak dira: 2008an biztanleko zor bizia 2.749,50€-takoa zen zehazki eta 2013an, berriz, 6.548,87€-takoa.

Aldagai honi dagokionez ere 2013an hoberen dauden Espainiako Autonomia Erkidegoak **Extremadura** eta **Melilla** direla esan daiteke, baina hala ere, bertako biztanleko zor bizia 2013an 2.398,71€-takoa eta 1.282,72€-takoa da hurrenez hurren. 2008an bi autonomia erkidego horietan ere biztanleko zor bizia dezentez baxuagoa zen (Extremaduran 825,80€/biztanleko eta Melillan 631,64€/biztanleko).

Hala ere, jarraian ikusiko den bezala, kasu honetan, interesgarria da aztertzea zor biziak biztanleko izandako hazkundera 2013an 2008.urtearekiko.

### 8.4.1 Zor biziak biztanleko izandako hazkundea 2008-2013 epean

26. Taula. Zor biziak biztanleko izandako hazkundea 2008-2013 epean (%)		16. Grafikoa. Zor biziak biztanleko izandako hazkundea 2008-2013 epean (%)	
	HAZK2013/08		
MELILLA	103,08%		
MADRIL	108,23%		
GALIZIA	134,70%		
BALENTZIA	138,18%		
BALEARRAK	144,89%		
CEUTA	154,83%		
KANARIAK	168,32%		
KATALUNIA	179,78%		
EXTREMADURA	190,47%		
ANDALUZIA	193,85%		
ERRIOXA	195,05%		
ARAGOI	202,73%		
GAZTELA ETA LEON	233,96%		
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>248,27%</b>		
NAFARROA	256,08%		
ASTURIAS	302,84%		
KANTABRIA	324,03%		
GAZTELA MANTXA	337,11%		
MURTZIA	624,12%		
EUSKADI	724,87%		

Iturria: Norberak egina INE, MINHAP eta Banco de Españaiko datuetan oinarrituta.

**Euskadiren** kasua aztertzeko, hasteko, datu hauek Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua erabiliz edota Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontua erabiliz, berdinak direla azaldu beharra dago, zor bizia balio absolutuan eta biztanleria berdinak baitira bi kasutan. Kasu honetan, 25. taulan ikusten den bezala, nahiz eta Euskadi 2013. urtean ez den biztanleko zor bizi altuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoen artean aurkitzen, 2008arekin alderatuz bertako biztanleko zor bizia ikaragarri igo dela aipatu beharra dago. Izan ere, 2013ko Euskadiko biztanleko zor bizia 2008an zegoena baino %724,87 handiagoa da (26. taulako datua da).

**Murtzian** ere antzeko zerbait gertatzen da, zehazki, 2013ko Murtziako biztanleko zor bizia 2008koa baino %624,12 handiagoa da.

Honen arrazoia, noski, jarraian adieraziko dudan bezala, proportzioan autonomia erkidego horietako 2013ko zor bizia balio absolutuan 2008koa baino askoz ere handiagoa dela da.

**Aragoi, Balentzia eta Kataluniaren** kasuan aldiz, nahiz eta esan bezala 2013an heuren eduki biztanleko zor bizi altuena, 2008an ere horrelaxe zuten eta beraz, nahiz eta ikaragarri igo den, proportzioan ez dago hainbesteko ezberdintasunik 2013ko biztanleko zor biziaren eta 2008koaren artean.

## 8.5 Zor biziaren hazkundera 2008-2013 epean

27. Taula. Zor biziaren hazkundera 2008-2013 epean (%)		17. Grafikoa. Zor biziaren hazkundera 2008-2013 epean (%)	
	HAZK2013/08		
MADRIL	109,89%	EUSKADI	722,24%
MELILLA	132,17%	MURTZIA	634,17%
GALIZIA	132,98%	GAZTELA MANTXA	338,97%
BALENTZIA	137,00%	KANTABRIA	326,22%
BALEARRAK	155,34%	ASTURIAS	296,36%
KATALUNIA	179,37%	NAFARROA	261,29%
KANARIAK	180,16%	BATEZBESTEKOA	252,41%
CEUTA	180,51%	GAZTELA ETA LEON	226,96%
ERRIOXA	190,84%	ARAGOI	200,15%
EXTREMADURA	190,93%	ANDALUZIA	200,15%
ANDALUZIA	200,15%	EXTREMADURA	190,93%
ARAGOI	200,15%	ERRIOXA	190,84%
GAZTELA ETA LEON	226,96%	CEUTA	180,51%
BATEZBESTEKOA	252,41%	KANARIAK	180,16%
NAFARROA	261,29%	KATALUNIA	179,37%
ASTURIAS	296,36%	BALEARRAK	155,34%
KANTABRIA	326,22%	BALENTZIA	137,00%
GAZTELA MANTXA	338,97%	GALIZIA	132,98%
MURTZIA	634,17%	MELILLA	132,17%
EUSKADI	7,2224429	MADRIL	109,89%

Iturria: Norberak egina MINHAP eta Banco de Españaiko datuetan oinarrituta.

Iturria: Norberak egina INE, MINHAP eta Banco de Españaiko datuetan oinarrituta.

Kasu honetan ere, biztanleko zor biziaren hazkundera aztertzean izandako ondorio berdinetara iristen da.

**Euskadiko** datu hori ere, aurrez aipaturiko aurrekontu bat zein bestea erabili, berdina dela aipatu behar da. Taula eta grafiko horietan adierazten den bezala, Euskadiko 2013ko zor bizia balio absolutuan 2008koa baino askoz ere handiagoa da: %722,24 handiagoa, zehazki. Honek ekarri du biztanleko zor biziaren hazkundera egotea.

**Murtziako** 2013ko zor bizia 2008koa baino %634,17 handiagoa da. Kasu honetan ere, zor biziaren hazkundera ikaragarri hau da 2013ko eta 2008ko biztanleko zor biziaren artean hazkundera ezberdintasuna egotearen eragilea.

**Aragoi, Katalunia** eta **Balentiaren** kasuan, oraintxe esan bezala eurek dute zor bizia sarrera arruntekiko eta biztanleko altuena 2013an, baina 2013an zor biziaren balio absolutuan izandako hazkundera aztertuz 2008arekiko, proportzioan, hazkundera ez dela beste hainbat autonomia erkidegoetan bezain handia izan ikus daiteke. Aragoiko 2013ko zor bizia balio absolutuan 2008an zegoena baino %200,15 da, Kataluniakoa %179,37 handiagoa eta Balentiakoa %137 handiagoa. Hala ere, hemen ikusten den bezalaxe, urte bat eta bestearen arteko ezberdintasuna oso handia dela nabarmendu behar da.

2013 eta 2008ko zor biziaren balio absolutuei dagokionez, 27. taula eta 17. grafikoan ikusten den bezala ezberdintasun txikiena **Madri**len eta **Melilla**n egon da. Madriko 2013ko zor bizia balio absolutuan 2008koa baino %109,89 handiagoa da eta Melillakoa %132,17 handiagoa.

## 8.6 Euskadiren kasua

Eusko Jaurlaritzako aurrekontu likidatua erabiliz eginez gero kalkuluak, 24. taula eta 14. grafikoan ikus daitezkeen bezalaxe, Euskadin ere 2008tik 2013ra zor bizia balio erlatiboan ikaragarri igo da; 2008an %12,06koa zen; ondorengo urte guztietan igotzen joan da eta azkenean, 2013an %101,79 izateraino igo da. Hau da, oraintxe adierazi

berri dudan bezala, nahiz eta beste hainbat autonomia erkidegoen zorra askoz ere handiagoa izan balio erlatiboan, Euskadik ere 2013an duen zorra, izandako sarrerak baino handiagoa da; 2008tik 2013ra, gainera, aldagai hau ikaragarri igo da.

Datu hauxe bera Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiak batzen dituen aurrekontu likidatua erabiliz kalkulatu bada, 2008tik 2013ra egoera asko txartu dela ondorioztatzen da baita ere, baina Euskadiren egoera hobea dela irteten da. "Konparazioa 2" deituriko eranskinetik harturiko datuak ondorengoak dira:

28. Taula. Zor bizia balio erlatiboan -Euskadi -						
URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	7,26%	21,31%	39,58%	42,00%	55,18%	64,81%

Iturria: Norberak egina EUSTATEko datuetan oinarrituta.

Kasu honetan, 2008an zor bizia sarrera arruntekiko %7,26koa zen eta 2013an, berriz, %64,81ekoa; esan bezala, nahiz eta asko igo portzentaje hau, aurreko kasuan baino baxuagoa da. Portzentajeetan ezberdintasun hau egotearen arrazoia sarrera arruntak dira, bi kasutan zor biziaren balioa berdina baita baina bigarren kasuan, logikoa den bezala, sarrera arruntak gehiago dira, Eusko Jaurlaritzarenak eta Foru Aldundienak batzen direlako (lehenengoan Eusko Jaurlaritzarenak soilik hartzen dira kontuan).

Zor bizia biztanleko aztertzean, aurrekontu batekin eta bestearekin lortzen diren emaitzak berdinak dira, izan ere, Euskadiko zor bizia eta biztanleria berdinak izango dira bi kasutan.

## 9 FUNTZIONAMENDU GASTUAK

### 9.1 Definizioa

Alde batetik, funtzionamendu gastuak adierazten dira balio absolutuan, zehazki: pertsonal gastuak, ondasun eta zerbitzu arrunten gastuak eta transferentzi arruntak; hau da, azken finean, orokorrean, administrazioa aurrera eramateko beharrezkoak diren gastu guztiak. Nire azterketarako, ordea, garrantzitsuagoa da honen balio erlatiboa ezagutzea, hau da, obligazio hauei aurre egiteko erabili den sarrera arrunten portzentajea ezagutzea. Era berean, urte ezberdinetan biztanleko izandako funtzionamendu gastuak ere aztertuko ditut, hau da, autonomia erkidego bakoitzean biztanle bakoitzak gastu horiengatik teoriar ordaindu beharko lukeena batz bestea.

### 9.2 Kalkuluak

- (1) Funtzionamendu gastuak, **balio absolutuan**: Gastuen 1, 2 eta 4 Kapituluak.
- (2) Sarrera arruntak
- Funtzionamendu gastuak, **balio erlatiboan**:  $(1)/(2) \cdot 100$
- Funtzionamendu gastuak, **biztanleko**:  $(1)/\text{Biztanleria}$




### 9.3 Funtzionamendu gastuak balio erlatiboan

29. Taula. Funtzionamendu gastuak balio erlatiboan

URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
BALENTZIA	91,82%	98,68%	105,09%	107,99%	120,35%	106,76%
GAZTELA MANTXA	96,94%	104,76%	116,16%	136,93%	103,61%	105,47%
MURTZIA	94,97%	93,59%	114,50%	114,97%	108,78%	103,78%
ANDALUZIA	87,96%	91,18%	97,25%	101,63%	109,46%	103,44%
KATALUNIA	100,53%	108,60%	112,49%	116,44%	102,96%	102,49%
KANARIAK	91,21%	96,38%	103,35%	102,46%	107,41%	100,60%
EXTREMADURA	89,91%	93,65%	104,20%	105,57%	106,48%	99,40%
EUSKADI	93,05%	115,74%	101,28%	101,65%	96,64%	98,35%
ERRIOXA	89,82%	91,53%	105,51%	93,44%	101,18%	97,87%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>90,62%</b>	<b>95,46%</b>	<b>102,76%</b>	<b>103,88%</b>	<b>104,83%</b>	<b>97,41%</b>
MADRIL	95,98%	96,23%	101,41%	95,40%	111,20%	96,98%
NAFARROA	85,72%	86,61%	87,76%	89,61%	95,76%	95,74%
ARAGOI	87,24%	94,68%	102,14%	107,67%	104,65%	95,71%
GALIZIA	82,83%	87,75%	98,24%	97,85%	98,18%	95,55%
ASTURIAS	85,75%	90,43%	97,99%	102,70%	106,46%	95,47%
GAZTELA ETA LEON	80,68%	83,83%	97,07%	98,47%	109,44%	94,07%
MELILLA	92,88%	93,98%	93,05%	97,34%	90,35%	92,20%
KANTABRIA	83,24%	88,17%	103,64%	98,63%	111,39%	92,06%
BALEARRAK	100,61%	101,58%	113,44%	113,99%	116,67%	90,79%
CEUTA	90,63%	96,45%	97,79%	90,93%	90,78%	84,13%

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.



Esan bezala, garrantzitsua da funtzionamendu gastuak sarrera arruntekiko suposatzen duten portzentajea ezagutzea. Hasteko, aipatzekoa da, Espainiako ia Autonomia Erkidego guztietan, 2013ko aldagai honen balioa 2008koa baino altuagoa dela; zehazki, Melillan, Balearretan eta Ceutan izan ezik.

**Melillaren** kasuan egia esan, nahiz eta tartean gora behera batzuk egon diren, ez dago apenas ezberdintasunik 2008 eta 2013 urteen artean, portzentaje honen balioa %92,88koa eta %92,20koa baita urte horietan hurrenez hurren. Hemen, aipatzekoa da, jarraian adieraziko dudan bezala, alde batetik 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino dezentez altuagoak direla, baina aurrez esan bezala, sarrera arruntekin ere berdina gertatu da eta horregatik, ez da egon aldagai honetan ezberdintasun handirik.

**Balearren** kasuan, 2008an %100,61ekoa zen aldagai honen balioa. 2012rarte igotzen joan zen, zehazki urte horretan %116,67ko baliora iritsi zelarik, baina 2013an beherakada nabarmena izan du, %90,79raino jaitsiz; 2013an Ceutan bakarrik da baxuagoa aldagai honen balioa. Beherakada honen arrazoia, funtzionamendu gastuen beherakada izan da, izan ere, nahiz eta 2013ko sarrera arruntak ere 2008koak baino baxuagoak izan, funtzionamendu gastuak balio absolutuan gehiago jaitsi dira. Zehazki, 10. taulan adierazi dudan bezala, 2013ko Balearretako sarrera arruntak 2008koak baino %4,37 baxuagoak dira eta 2013ko funtzionamendu gastuak, berriz, jarraian erantsi dudan 31. taulan ikus daitekeen bezala, 2008koak baino %13,71 baxuagoak.

**Ceuta**, esan bezala, 2013.urtean funtzionamendu gastuak balio erlatiboan baxuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa da: %84,13koa da bere balioa (2008an %90,63koa zen). Beherakada honen arrazoia, aurrez erantsitako 10. taula eta 6. grafikoan ikusten den bezala, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino handiagoak izatea da, izan ere, jarraian dauden 31. taula eta 20. grafikoetan ikus daitekeen bezala, funtzionamendu gastuak apenas aldatu baitira.

Bestalde, aldagai honi dagokionez, beste muturrean **Balentzia** aurkitzen da. Valentzian aldagai honen balioa %91,82koa zen 2008an; %120,35eraino iritsi zen 2012an eta azkenik, %106,76koa da 2013an. Valentzia da 2013an funtzionamendu gastuak balio erlatiboan altuenak dituen Espainiako Autonomia Erkidegoa. Igoera honen arrazoia sarrera arruntan jaitsiera da, izan ere, nahiz eta 2013ko funtzionamendu gastuak balio absolutuan 2008koak baino zertxobait baxuagoak izan, sarrera arruntak askoz ere gehiago jaitsi dira (zehazki, 10. taulan adierazita dagoen bezala, Valentziako 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino %19,14 baxuagoak dira).

**Gaztela Mantxaren** kasuan, 2008an %96,94koa zen aldagai honen balioa; %136,93raino iritsi zen 2011ean eta azkenik, %105,47ko balioa du 2013an (Balentziaren atzetik 2013an dagoen balio altuena da).

**Murtzia** ere antzeko egoeran aurkitzen da: %94,97koa zen aldagai honen balioa 2008an eta 2013an, berriz, %103,78koa da.

Bi autonomia erkidego hauetan ere, 2008tik 2013ra igoera hau egotearen arrazoia Balentziako kasuaren berdina da, hau da, nahiz eta 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino baxuagoak izan, sarrera arruntetan izandako beherakada are handiagoa da. Zehazki, 2013ko Gaztela Mantxako funtzionamendu gastuak balio absolutuan 2008koak baino %31,49 baxuagoak dira, baina aurrez esan bezala, bertako 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino %37,03 baxuagoak dira. Murtziaren kasuan, nahiz eta 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino %10,27 baxuagoak izan, 2013ko sarrera arruntak 2008koak baino %17,89 baxuagoak dira.

Espainiako beste hainbat Autonomia Erkidegoetan ere aldagai honek 2013an duen balioa 2008an zuena baino askoz ere handiagoa da, **Andaluzian, Gaztela Leonen eta Aragoi**n besteak beste, baina aurrez azalduriko hiru autonomia erkidego horietan dira funtzionamendu gastuak balio erlatiboan altuenak 2013an.


#### 9.4 Funtzionamendu gastuak biztanleko

Kasu honetan, funtzionamendu gastuei aurre egiteko biztanle bakoitzak teoriar ordaindu beharreko euroak kalkulatzeko dira.

30. Taula. Funtzionamendu gastuak biztanleko (€)						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
NAFARROA	5.260,98	5.262,15	5.158,56	4.909,35	4.726,31	4.724,16
EUSKADI	3.574,21	3.934,73	3.884,12	3.926,61	3.903,68	3.691,53
ERRIOXA	3.165,75	3.304,41	3.285,34	3.030,51	3.192,31	2.960,71
EXTREMADURA	3.781,56	3.894,88	3.839,13	3.680,48	3.557,42	2.949,03
KANTABRIA	3.034,49	3.246,88	3.250,82	3.054,69	3.399,17	2.941,32
ASTURIAS	2.901,77	3.126,21	2.976,76	3.009,93	3.162,37	2.834,68
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>3.073,19</b>	<b>3.287,65</b>	<b>3.159,72</b>	<b>3.040,80</b>	<b>3.039,68</b>	<b>2.703,27</b>
KATALUNIA	3.291,06	3.835,06	3.441,05	3.400,37	3.131,32	2.678,13
GALIZIA	3.036,77	3.206,31	3.074,18	2.640,37	2.611,71	2.583,09
ARAGOI	3.021,21	3.436,97	3.247,55	3.318,87	3.148,67	2.558,20
GAZTELA ETA LEON	2.875,63	3.049,75	3.151,74	2.956,59	3.387,00	2.556,85
KANARIAK	2.842,49	3.187,10	2.894,24	2.712,86	2.670,09	2.547,40
GAZTELA MANTXA	3.646,94	4.037,70	3.572,58	3.939,80	2.889,89	2.488,12
ANDALUZIA	3.061,44	3.172,09	2.952,57	2.944,32	3.002,08	2.382,65
MURTZIA	2.672,71	2.709,33	2.818,15	2.676,75	2.430,32	2.365,40
BALENTZIA	2.398,17	2.626,02	2.483,11	2.382,93	2.569,59	2.266,04
MADRIL	2.509,31	2.702,83	2.498,09	2.337,83	2.701,97	2.244,40
MELILLA	2.282,71	2.460,48	2.355,11	2.293,03	2.244,49	2.240,97
BALEARRAK	2.656,90	2.587,20	2.621,13	2.291,99	2.719,88	2.198,73
CEUTA	2.376,56	2.685,34	2.530,53	2.267,87	2.305,56	2.150,68

Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.

19. Grafikoa. Funtzionamendu gastuak biztanleko (€)



Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.

2013.urtean, Espainiako Autonomia Erkidegoetako biztanle bakoitzak, funtzionamendu gastuei aurre egiteko, teoriarik 2.703,27€ ordaindu behar dituela batz bestekoa ikus daiteke. Autonomia Erkidego gehienak batz besteko horren inguruan daude, baina gehien urruntzen direnak (goitik nahiz behetik) ondorengoak dira:

**Ceutan**, 2008an biztanleko bakoitzak 2.376,56€ ordaindu behar zituen funtzionamendu gastuei aurre egiteko; ondorengo urteetan gorabeherak egon dira eta azkenik, 2013an 2.150,68€-tako da balio hau. Ceutako biztanleria da, teoriarik, Espainian 2013. urtean funtzionamendu gastuei aurre egiteko diru gutxien ordaindu behar duen biztanleria. Beherakada honen arrazoia, alde batetik, 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino zertxobait baxuagoak direla da (%0,38 baxuagoak) baina, batik bat, biztanleriak gora egin duela da; 2013an Ceutan dagoen biztanle kopurua 2008an zegoena baino %10,08 handiagoa baita.


**Balearretan** ere zifra hauek antzekoak dira. 2013an, zehazki, biztanleko funtzionamendu gastuak 2.198,73€-takoak dira. 2008an, ordea, dezentez altuagoak ziren: 2.656,90€/biztanleko. Beherakada honen arrazoia, alde batetik, 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino baxuagoak direla da eta bestalde, gainera, biztanleria igo egin dela 2008tik 2013ra.

**Nafarroan** dira biztanleko funtzionamendu gastuak altuenak urte guztietan, batz bestekotik dezente aldetzen dira gainera. Funtzionamendu gastuak balio erlatiboan, hau da, sarrera arruntekiko, ordea, 29. taulan ikusten den bezala ez dira hain altuak (batz bestekoaren azpitik kokatzen dira urtero hain zuzen ere); honen arrazoia, Nafarroako biztanleria baxua dela da eta horregatik, biztanleko funtzionamendu gastuak oso altuak irteten dira beste autonomia erkidegoenekin alderatuz. Zehazki, 2008an 5.260,98€-takoak ziren eta 2013an zerbait baxuagoak (4.724,16€). Jaitsiera

honen arrazoia funtzionamendu gastuen jaitsiera da, biztanleria nahiko konstante mantendu baita.

**Euskadi** ere, aurrez aipaturiko bai aurrekontu batekin eta bai bestearekin (emaitzak berdinak baitira), biztanleko funtzionamendu gastu altuenak dituen Espainiako Autonomia Erkidegoen artean kokatzen da; honen arrazoia Nafarroako berdina da, hau da, nahiz eta bertako funtzionamendu gastuak balio erlatiboan ez izan beste autonomia erkidegoetakoak baino altuagoak, proportzian bertako biztanleria Espainiako beste Autonomia Erkidegoetakoak baino baxuagoa da. Aztertzen ari naizen urte hauetan gorabehera batzuk egon dira baina orokorrean, nahiko konstante mantendu dira; erreferentzia gisa, 2008an Euskadiko biztanleko funtzionamendu gastuak 3.574,21€-takoak ziren eta 3.691,53€-takoak dira 2013an.

### 9.5 Funtzionamendu gastuen hazkundera 2008-2013 epean



Azkenik, nahiz eta aurrez hainbat autonomia erkidegoetako funtzionamendu gastuen balio absolutuen bilakaera aztertu dudan, Espainiako hainbat Autonomia Erkidego aipatuko ditut:

Autonomia erkidego guztietan, 2013ko funtzionamendu gastuak balio absolutuan 2008koak baino baxuagoak dira, Melillan eta Euskadin izan ezik.

**Melillaren** kasuan, zehazki, 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino %12,23 handiagoak dira.

**Euskadin** 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino %2,95 handiagoak dira, ez dago apenas ezberdintasunik, alegia.

Esan beharra dago, batz bestea Espainiako Autonomia Erkidegoetan 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino %10,09 baxuagoak direla, baina batz besteko horretatik ondorengo autonomia erkidegoak ere dezente urruntzen dira:

**Gaztela Mantxaren** kasuan, oraintxe esan berri dudan bezala, 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino %31,49 baxuagoak dira.

**Extremadura** eta **Andaluzia** ere batz bestekotik nahiko urrun daude, autonomia erkidego horietako 2013ko funtzionamendu gastuak 2008koak baino %21,89 eta %20,51 baxuagoak baitira hurrenez hurren.

## 9.6 Euskadiren kasua

Eusko Jaurlaritzako aurrekontu likidatua erreferentziatzat hartuz, 29. taula eta 18. grafikoan ikusten den bezala, funtzionamendu gastuak sarrera arruntekiko aztertzean, Euskadi batz bestekoaren inguruan mantentzen da urte guztietan. Zehazki, 2008an %93,05ekoak ziren; %115,74raino igo zen portzentaje hau eta hurrengo urtean eta azkenik, 2013an %98,35ekoak izan dira.

\*Jarraian dagoen taulan ikus daitekeen bezala, ordea, Eusko Jaurlaritzako eta hiru Foru Aldundien datuak batzen dituen aurrekontu likidatuarekin egiten badira kalkulu hauek, portzentaje hauek dezente jaisten dira.

URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	56,05%	68,62%	66,19%	64,44%	64,60%	62,62%

Iturria: Norberak egin EUSTATEko datuetan oinarrituta.

Portzentaje hauen jaitsieraren arrazoa ondorengoa da: funtzionamendu gastuak balio absolutuan berdinak izaten jarraitzen dute baina Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundien sarrera arruntak batzean, logikoa den bezala, Eusko Jaurlaritzak soilik dituen sarrerak baino gehiago lortzen dira eta honek, ehunekoan jaitsiera ekartzen du. Balioei dagokionez, 2008an aldagai hau %56,05ekoa zen eta %62,62koa da 2013an. Datu hauek 29. taulan agertzen diren beste autonomia erkidegoen datuekin alderatuz geroz, beraz, funtzionamendu gastuak balio erlatiboan baxuenak dituen Espainiako Autonomia Erkidegoa dela esan daiteke Euskadi, bai 2013an eta baita aztertzen ari naizen beste urteetan ere.

**Biztanleko funtzionamendu gastuak**, aldiz, berdinak dira bi kasutan, funtzionamendu gastuak eta biztanleria aurrekontu batetik bestera ez baitira aldatzen.

## 10 INBERTSIO GARBIAK

### 10.1 Definizioa

Balio absolutuan, kapital-gastuetan onartutako obligazioak jasotzen ditu, hauei inbertsioen besterenganatzea kenduta. Bestalde, datu hau biztanleen datuekin erlazionatu eta batz beste, teoriar, urtero autonomia erkidego bakoitzean biztanleko egiten den inbertsioa kalkulatu dut.

### 10.2 Kalkuluak

- (1) Inbertsio garbiak, **balio absolutuan**: Gastuen 6, 7 eta 8 kapituluak, sarreraren 6 eta 8 kapituluak kenduta.
- Inbertsio garbiak, **biztanleko**: (1)/Biztanleria


### 10.3 Inbertsio garbiak biztanleko

33. Taula. Inbertsio Garbiak biztanleko (€)

URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
EUSKADI	593,24	744,32	748,89	564,68	577,32	473,24
GALIZIA	1.007,03	899,56	697,27	554,46	567,16	453,89
ARAGOI	834,66	836,30	686,45	483,07	342,81	450,25
GAZTELA ETA LEON	1.010,80	1.075,03	892,48	468,56	509,93	429,81
NAFARROA	1.658,77	1.531,93	1.319,00	1.017,77	592,29	419,10
KANTABRIA	888,81	821,48	643,53	531,55	429,79	390,66
KATALUNIA	676,77	580,78	545,92	453,94	399,62	378,36
BALEARRAK	639,37	723,66	602,82	437,11	500,95	375,68
EXTREMADURA	925,61	894,86	607,60	687,50	378,25	374,31
ERRIOXA	735,56	650,45	601,80	573,15	427,20	353,68
ASTURIAS	854,86	955,93	918,28	716,33	422,06	341,93
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>740,46</b>	<b>746,10</b>	<b>628,60</b>	<b>510,69</b>	<b>482,88</b>	<b>338,86</b>
KANARIAK	600,92	551,82	440,14	335,07	264,32	333,88
ANDALUZIA	879,15	834,29	627,73	412,45	502,09	331,57
BALENTZIA	338,64	386,30	449,41	460,79	653,59	330,07
MELILLA	413,28	604,55	632,22	422,69	308,60	268,63
MADRIL	268,69	240,55	150,84	263,10	304,17	211,06
GAZTELA MANTXA	599,95	681,05	508,31	651,50	478,82	187,85
CEUTA	420,17	641,54	448,32	341,01	766,08	172,34
MURTZIA	722,51	521,52	422,42	328,36	749,65	162,08

Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.

21. Grafikoa. Inbertsio Garbiak biztanleko (€)



Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.

Grafikoan ikusten den bezala, Espainiako Autonomia Erkidego guztietan 2013an biztanleko egiten den inbertsioa eurotan, 2008an egiten zena baino baxuagoa da. 33. taula eta 21. grafikoari erreparatuz, aipagarrienak ondorengo autonomia erkidegoak dira:

2013an biztanleko gehien inbertitzen den Espainiako Autonomia Erkidegoa **Euskadi** da. Bilakaerari dagokionez gora beherak egon dira: 2008an biztanleko inbertsioa 593,24€-takoa zen; 2010ean 748,89€-taraino igo zen eta azkenik, 2013an jaitsiera bat egon da, 473,24€-takoak baitira biztanleko inbertsio garbiak. Datu hauek aurrez aipaturiko bi aurrekontuak erabiliz berdinak dira, inbertsioak eta biztanleria ez baitira aldatzen aurrekontu batetik bestera.

**Galiziaren** kasuan, nahiz eta 2013an biztanleko inbertsioak eurotan altuak izan, 2008arekin konparatuz oso balio baxua dela ikus daiteke. Izan ere, 2008an biztanleko egindako inbertsioa batz bestez 1.007,03€-takoa izan zela suposatzen da eta 2013an, berriz, 453,89€-taraino jaitsi da balio hau.

**Aragoi** ere biztanleko inbertsio garbi altuenak dituzten Espainiako Autonomia Erkidegoen artean aurkitzen da 2013an. Bilakaera aztertuz, balio hau 834,66€-takoa zen 2008an; 342,81€-taraino jaitsi zen 2012an eta azkenik, 450,25€-takoa da 2013an.

**Nafarroan** aldagai honek 2008tik 2013ra izandako beherakada handia nabarmentzekoa da. 2008an biztanleko inbertsioak 1.658,77€-takoak ziren. Hurrengo urteetan pixkana jaisten joan zen kantitate hau, baina 2011tik 2012ra izan zuen beherakada nabarmena: 1.017,77€-tatik 592,29€-tara jaitsi baitzen. Azkenik, 2013an 419,10€-takoa izan da. Beherakada honen arrazoia inbertsio garbiak balio absolutuetan ikaragarri murriztu direla da, zehazki, 2008tik 2013ra ia laudenera murriztu dira.

Bestalde, 2013an biztanleko egiten den inbertsioari dagokionez, gutxien inbertitzen duen Espainiako Autonomia Erkidegoa **Murtzia** da. Gainera, 2008tik 2013ra bitartean aldagai honek izandako gorabeherak nabarmentzekoak dira; izan ere, 2008an inbertsio garbiak biztanleko 722,51€-takoak ziren; 2011ean 328,36€-taraino jaitsi zen balio hau eta datorren urtean, berriz, 749,65€-taraino igo zen. Aztertzen ari naizen azken urte honetan ordea, 2013an, alegia, biztanleko egindako inbertsio garbiak 162,08€-taraino jaitsi dira. 2008 eta 2013 urteen artean horrelako ezberdintasuna egotearen arrazoia, jarraian azalduko dudana bezala, 2013ko inbertsio garbiak balio absolutuan 2008koak baino askoz ere gutxiago direla da.

Ceuta eta Gaztela Mantxa ere, 2013. urtean biztanleko inbertsio garbi baxuenak dituzten autonomia erkidegoen artean aurkitzen dira.

**Ceutari** dagokionez, 420,17€-takoa zen aldagai hau 2008an; 2012. urtean ikaragarri igo zen, 766,08€-taraino iritsiz. 2013. urtean, ordea, beherakada itzela eman da: 172,34€-taraino jaitsiz biztanleko inbertsio garbiak.

**Gaztela Mantxaren** kasuan, 2008an inbertsio garbiak biztanleko 599,95€-takoak izan ziren. Hainbat gorabehera eman ziren hurrengo urteetan eta azkenik, 2013an, 187,85€-taraino jaitsi da aldagai honen balioa.

## 11 INBERTSIO-MAILA

### 11.1 Definizioa

Balio absolutuan, aurreko adierazleak bezalaxe, kapital-gastuetan onartutako obligazioak jasotzen ditu, hauei inbertsioen besterenganatzea kenduta. Balio erlatiboan (inbertsio-maila, alegia), gastu osoaren gainean obligazio horiek duten portzentajea kalkulatu da.



## 11.2 Kalkuluak


- (1) Inbertsio garbiak, balio absolutuan
- (2) Gastuak guztira: Gastuen 1etik 9rainoko kapituluak
- Inbertsio-maila: (1)/(2)\*100

## 11.3 Inbertsio-maila

34. Taula. Inbertsio-maila						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
ARAGOI	21,05%	19,10%	16,57%	12,08%	9,03%	13,34%
GAZTELA ETA LEON	25,40%	25,51%	21,49%	13,13%	12,33%	13,01%
GALIZIA	23,67%	21,10%	17,37%	16,15%	16,33%	12,84%
BALEARRAK	18,80%	20,95%	17,86%	14,40%	12,96%	11,66%
BALENTZIA	11,94%	12,29%	14,70%	15,37%	18,97%	11,52%
KANTABRIA	21,85%	19,73%	16,17%	14,25%	10,58%	10,80%
EUSKADI	13,85%	15,74%	15,82%	12,11%	12,27%	10,78%
ANDALUZIA	21,53%	20,04%	16,65%	11,60%	13,23%	10,64%
KANARIAK	16,67%	14,20%	11,83%	10,34%	7,91%	10,63%
EXTREMADURA	19,24%	18,29%	13,25%	15,10%	9,09%	10,38%
MELILLA	14,52%	18,91%	20,00%	14,53%	11,11%	9,96%
ASTURIAS	22,12%	22,82%	22,93%	18,34%	10,97%	9,76%
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>18,25%</b>	<b>17,63%</b>	<b>15,57%</b>	<b>13,36%</b>	<b>12,53%</b>	<b>9,64%</b>
KATALUNIA	16,30%	12,33%	12,55%	9,67%	8,70%	8,22%
ERRIOXA	18,45%	16,13%	15,16%	15,20%	11,01%	7,50%
NAFARROA	23,63%	22,18%	19,54%	16,41%	10,44%	7,25%
MADRIL	9,25%	7,64%	5,35%	9,34%	9,15%	7,12%
CEUTA	13,81%	18,11%	14,08%	11,79%	22,47%	6,43%
GAZTELA MANTXA	13,64%	14,16%	11,95%	13,50%	10,61%	6,18%
MURTZIA	21,04%	15,71%	12,63%	10,47%	20,86%	5,16%

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

22. Grafikoa. Inbertsio-maila



Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Biztanleko inbertsio garbiekin gertatzen zen bezalaxe, Espainiako Autonomia Erkidego guztietan 2013ko inbertsio-maila 2008koa baino baxuagoa da. Honek esan nahi du, beraz, gastuen geroz eta gutxiago erabiltzen dela inbertsioetarako.

Kasu honetan, **Aragoi** da 2013an inbertsio-maila altuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa, %13,34koa da bere balioa (2008an %21,05ekoa zen).

**Gaztela eta Leon** da 2013an inbertsio-maila altuena duen Espainiako bigarren Autonomia Erkidegoa; bilakaerari dagokionez, 2008an aldagai honen balioa %25,40koa zen eta 2013. urtean %13,01 izateraino jaitsi da. Beherakada honen arrazoia, jarraian azalduko ditudan 35. taula eta 23. grafikotik ikusten den bezala, inbertsio garbien beherakada izan da, izan ere, nahiz eta 2013ko gastuak 2008koak baino baxuagoak izan, zehazki %18,71 baxuagoak (Gaztela eta Leonen eranskinetik harturiko datua da), inbertsio garbiak balio absolutuan askoz ere gehiago jaitsi dira; zehazki, 2013ko inbertsio garbiak balio absolutuan 2008koak baino %58,37 baxuagoak dira, hau da, erdira baino gehiago murriztu dira.

**Galiziako** zifrak ere aurrekoaren antzekoak dira: 2008an inbertsio-maila %23,67koa zen eta zifra hau urtez urte jaisten joan da, 2013an %12,84 izatera iritsiz. Beherakada honen arrazoia ere, inbertsio garbien jaitsiera izan da.

Beste muturrean, **Murtzia** dago. 2013an inbertsio-maila baxuena duen Espainiako Autonomia Erkidegoa da; zehazki, gastuen %5,16a soilik bideratzen du inbertsioetara. 2008an portzentaje hau laukoitza zen, %21,04koa hain zuzen ere. 2008tik 2011era bitartean behera egin zuen portzentaje honek, baina 2012an berriz ere %20,86ra igo zen. 2013an, ordea, esan bezala, ikaragarri jaitsi da portzentaje hau. Beherakada honen arrazoia, inbertsio garbien beherakada itzela izan da. Izan ere, 35. taulan ikusten den bezala, 2013ko Murtziako inbertsio garbiak 2008koak baino %77,26


baxuagoak dira; gastuei dagokionez, nahiz eta 2013koak 2008koak baino zertxobait gutxiago izan, nahiko konstante mantendu direla esan daiteke.

**Gaztela Mantxa** da 2013an Murtziaren atzetik inbertsio-maila baxuena duen autonomia erkidegoa: 34. taulan ikus daitekeen bezala, %6,18koa da bere balioa. 2008arekin alderatuz, beherakada bat egon dela aipatu beharra dago, 2008an aldagai honen balioa %13,64koa baitzen. Hemen gertatu dena da, alde batetik, 35. taulan ikusten den bezala, 2013ko inbertsio garbiak balio absolutuan 2008koak baino askoz baxuagoak direla, zehazki, %68,56 baxuagoak. Bestalde, ordea, gastuetan ere beheraka nabarmena egon da (Gaztela Mantxaren eranskinetiko datuetan oinarrituz: 2013koak 2008koak baino %30,57 baxuagoak dira); horregatik, nahiz eta inbertsio-maila erdira murriztu den, ez da beste hainbat autonomia erkidegoetan egon den beherakada bezain nabarmena izan.

**Ceuta**ko portzentajeak aurrekoaren antzekoak dira, izan ere, 2008an inbertsio-maila %13,81ekoa zen eta 2013an, berriz, %6,43koa. Aipatu beharra dago, ordea, 2012an %22,47raino igo zela portzentaje hau.

**Nafarroan** 2008tik 2013ra aldagai honek izan duen beherakada ere aipatzekoa da. 2008an inbertsio-maila %23,63koa zen, hau da, inbertsio-maila altuena zuten Espainiako Autonomia Erkidegoen artean kokatzen zen. Hurrengo urteetan jaisten doan da urtez urte, 2013an %7,25eko baliora iritsiz. Honen arrazoia, jarraian zehaztuko dudana bezala, inbertsio garbien beherakada izan da; izan ere, nahiz eta 2013an dauden gastuak ere 2008an zeudenak baino gutxiago izan (Nafarroaren eranskinetik hartutako datuaren arabera: %16,42 gutxiago, zehazki), inbertsio garbiak balio absolutuan, proportzioan, askoz ere gehiago murriztu dira 2008tik 2013ra (2013koak 2008koak baino %74,37 baxuago dira).

#### 11.4 Inbertsio garbien hazkundera 2008-2013 epean



Aurreko bi aldagaiekin lotuta, inbertsio garbien balio absolutuen hazkundea aztertzea garrantzitsua da. 35. Taula eta 23. grafikoan ikus daitekeen bezala, Espainiako Autonomia Erkidego guztietako 2013ko inbertsio garbiak balio absolutuan 2008koak baino baxuagoak dira. Batz bestea, 2013ko inbertsio garbiak 2008koak baino %48,43 baxuagoak direla ikus daiteke, baina badaude hainbat autonomia erkidego batz besteko horretatik asko urruntzen direnak.

Oraintxe esan bezala, **Murtziako** 2013ko inbertsio garbiak 2008koak baino askoz ere baxuagoak dira, zehazki, %77,26 baxuagoak.

**Nafarroaren** kasuan ere antzekoa da portzentaje hau, zehazki, 2013ko inbertsio garbiak balio absolutuan 2008koak baino %74,37 baxuagoak dira.

**Gaztela Mantxaren** kasuan ere, oraintxe esan dudana bezalaxe, 2013ko inbertsio garbiak 2008koekin alderatuz oso baxuak dira (%68,56 baxuagoak).

**Balentiaren** kasuan, aldiz, 2013ko eta 2008ko inbertsio garbien artean ez dago ia batere ezberdintasunik; izan ere, 2013koak 2008koak baino %3,02 baxuagoak dira soilik.

**Euskadiko** kasuan, inbertsio-mailari dagokionez ez dut aipamen berezirik egin, izan ere, Espainiako Autonomia Erkidego guztietan bezalaxe, 2013ko Euskadiko inbertsio-maila 2008koa baino baxuagoa da. Hala ere, 34. taula eta 22. grafikoan ikusten den bezala, 2013ko Euskadiko inbertsio-maila batz bestekoaren gaintik dago, %10,78koa izanik (2008an %13,85ekoa zen). Datu hau, aurrez aipaturiko bi aurrekontuak erabiliz berdina dela esan beharra dago, inbertsio garbiak eta gastuak berdinak baitira bi kasutan.

Inbertsio garbien balio absolutuen hazkundeari dagokionez, aipamen bat egitea garrantzizkoa da. Izan ere, 2013ko inbertsio garbiak balio absolutuan, 2008koak baino %20,48 baxuagoak dira, eta hau, nahiz eta beherakada nabarmena izan, 35. taula eta 23. grafikoan ikusten den bezala, Espainiako beste Autonomia Erkidego guztietan (Balentzian izan ezik) izandako beherakada baino txikiagoa da. Horregatik, 2008ko eta 2013ko inbertsio-mailaren artean ez dago beste autonomia erkidegoetan bezalako ezberdintasunik; Euskadin gastuak ere nahiko konstante mantendu dira.

**Madriren** kasuan ere, nahiz eta beherakada nabarmena izan, beste autonomia erkidegoetan baino ezberdintasun gutxiago dagoela ikus daiteke: zehazki, 2013ko inbertsio garbiak 2008koak baino %20,82 baxuagoak dira.

Aurreko bi aldagaietan, beraz, garbi ikusi da 2013an inbertsioetara bideratzen den diru kopurua 2008koa baino askoz ere baxuagoa dela.

## 12 PRESIO FISKALA

### 12.1 Definizioa

Balio absolututan adierazten bada, zuzeneko zergetan, zeharkako zergetan, tasetan eta bestelako sarreretan likidatutako eskubideak jasotzen ditu ( hau da, sarreretako 1.,2. eta 3. kapituluak). Nik 3. kapitulu osoa hartu dut nahiz eta, zenbait erakundeen ustez, 3.en kapitulu honetako artikulua batzuetako sarrerak (adibidez 30, 38 eta 39. artikuluetakoak) ez diren kontutan hartu behar euren izaera bereziagatik; edozein kasutan ere, artikulua berezi hauen zenbatekoak adierazgarriak ez direnez, 3.en kapituluaren zenbateko osoarengan ez dute eragin nabarmenik egiten.

Nire azterketarako, lehendabiziko 3 kapitulu horietakok zenbatekoak biztanleko kalkulatu ditut, autonomia erkidego bakoitzak kontzeptu horiengatik biztanleko jasotzen duena adierazteko.


## 12.2 Kalkuluak

- (1) Sarrera tributarioak, **balio absolutuan**: Sarrerren 1,2 eta 3. kapituluak
- Sarrera tributarioak, **biztanleko**: (1)/Biztanleria

## 12.3 Sarrera tributarioak biztanleko

36. Taula.Sarrera tributarioak biztanleko (€)						
URTE	2.008	2.009	2.010	2.011	2.012	2.013
NAFARROA	5.989,60	5.932,52	5.737,67	5.358,16	4.827,41	4.833,14
MADRIL	2.468,55	2.370,94	1.963,90	2.575,53	3.224,61	2.484,52
BALEARRAK	2.478,77	2.204,45	1.871,30	2.276,45	3.046,61	2.413,20
KATALUNIA	2.203,11	2.102,98	1.731,90	2.365,70	2.875,74	2.322,02
KANTABRIA	2.078,01	2.016,92	1.677,75	2.257,29	2.750,03	2.243,10
ASTURIAS	1.891,38	1.819,42	1.596,73	2.241,48	2.747,64	2.232,18
ARAGOI	2.058,16	2.024,65	1.677,74	2.295,67	2.767,74	2.193,34
GAZTELA ETA LEON	1.613,97	1.638,37	1.390,69	1.957,58	2.514,10	2.055,97
<b>BATEZBESTEKOA</b>	<b>1.925,34</b>	<b>1.855,22</b>	<b>1.617,71</b>	<b>2.006,20</b>	<b>2.334,34</b>	<b>1.957,22</b>
ERRIOXA	1.957,52	1.875,41	1.545,07	2.201,30	2.495,25	1.942,14
GALIZIA	1.609,35	1.485,70	1.265,00	1.804,58	2.273,11	1.829,01
BALENTZIA	1.863,24	1.715,20	1.413,24	1.888,02	2.213,03	1.777,34
EXTREMADURA	1.334,32	1.274,18	1.149,24	1.619,04	2.055,48	1.764,83
GAZTELA MANTXA	1.579,50	1.502,98	1.241,80	1.689,63	2.171,20	1.679,26
MURTZIA	1.644,61	1.524,18	1.224,22	1.704,90	2.080,61	1.673,35
CEUTA	1.779,67	1.881,89	1.828,54	1.733,54	1.644,33	1.638,67
ANDALUZIA	1.524,10	1.421,90	1.178,96	1.642,64	1.968,11	1.571,76
KANARIAK	1.237,21	1.182,00	955,60	1.204,42	1.403,78	1.256,18
MELILLA	1.194,82	1.193,73	1.196,91	1.202,78	1.199,96	1.175,44
EUSKADI	75,50	81,74	90,25	99,08	93,75	101,73
Iturria: Norberak egina MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.						

24. Grafikoa. Sarrera tributarioak biztanleko (€)



Iturria: Norberak egin MINHAP eta INEko datuetan oinarrituta.

Espainiako beste Autonomia Erkidegoekin alderatuz, **Nafarroan** biztanleko askoz ere zerga eta tasa gehiago biltzen direla argi ikusten da 36. taula eta 24. grafikoa. 2008an 5.989,60€-tako zen datu hau; hurrengo urteetan hainbat gorabehera egon dira eta azkenik, 2013an, Nafarroan zerga eta tasengatik, teoriarik, biztanleko 4.833,14€ biltzen dira. Ikusten denez, beraz, 2013an biltzen diren biztanleko sarrera tributarioak 2008koak baino 1.100€ baxuagoak dira gutxi gorabehera. Beherakada honen arrazoia, gero adieraziko dudan bezala, 2013ko sarrera tributarioak balio absolutuan 2008koak baino dezentez baxuagoak direla da.

2013. urtean, biztanleko zerga eta tasa gehien biltzen diren Espainiako Autonomia Erkidegoen artean **Madril** aurkitzen da. 2008an ere, ordea, biztanleko diru gehien biltzen zuten autonomia erkidegoen artean aurkitzen zela esan beharra dago. Izan ere, 2008an Madrilen biztanleko sarrera tributarioak 2.468,55€-takoak ziren; 2012. urtean 3.224,61€-taraino igo zen kantitate hau eta azkenik, 2013an, berriz ere apur bat jaitsi da: 2.484,52€-tara zehazki.

**Balearretako** zifrak ere antzekoak dira. 2008an biztanleko sarrera tributarioak 2.478,77€-takoak ziren; hemen ere 2012an igo egin zen kantitate hau, zehazki 3.046,61€ izanik eta 2013an, berriz, biztanleko sarrera tributarioak 2.413,20€-takoak dira.

Bi kasutan, 2012an zifra hauek igotzearen arrazoia, urte horretan autonomia erkidego horietan sarrera tributarioak balio absolutuan igoera bat izan zutela da, biztanleria orokorrean bi autonomia erkidegoetan nahiko konstante mantendu baita.


**Katalunia** ere, nahiz eta zifrak zertxobait baxuagoak izan, 2013an biztanleko tasa eta zerga gehien biltzen dituzten Espainiako Autonomia Erkidegoen artean aurkitzen da: 2.322,02€/biztanleko zehazki. 2008an zertxobait baxuagoa zen zifra hau: 2.203,11€/biztanleko.

Beste muturrean, aldiz, **Melilla** aurkitzen da. Bai 2008an eta baita 2013an ere, biztanleko zerga eta tasa gutxien biltzen dituen Espainiako Autonomia Erkidegoa da. 2008an biztanleko sarrera tributarioak 1.194,82€-takoak ziren; hurrengo urteetan nahiko konstante mantendu da kantitate hau, 2013an 1.175,44€-takoak izanik.

**Kanariar Uharteak** ere batuz beste biztanleko zerga eta tasa gutxien biltzen dituzten Espainiako Autonomia Erkidegoen artean aurkitzen da. 2008an biztanleko 1.237,21€; 2010ean 955,60€-taraino jaitsi zen balio hau eta azkenik, 2013an, 1.256,18€-takoak da. 2010eko beherakada hori, urte horretan sarrera tributarioak balio absolutuan dezente murriztu zirelako izan zen.

**Andaluzia** ere, nahiz eta zertxobait gehiago izan, 2013an biztanleko sarrera tributario baxuenak dituzten Espainiako Autonomia Erkidegoen artean aurkitzen da. Bilakaerari dagokionez ondorengoak da: 2008an 1.524,10€; 2010ean 1.178,96€-taraino jaitsi zen; 2011an, aldiz, 1.968,11€-tara igo eta 2013an, azkenik, 1.571,76€-takoak izan da. Gorabehera horiek sarrera tributarioek absolutuki gorabeherak izan dituztelako izan dira, biztanleria orokorrean nahiko konstante mantendu baita.

#### 12.4 Sarrera tributarioen hazkundera 2008-2013 epean



37. Taula eta 25. grafikoan ikus daitekeen bezala, ia Espainiako Autonomia Erkidego guztietako 2013ko sarrera tributarioak balio absolutuan, 2008koak baino handiagoak dira. Hau betetzen ez den autonomia erkidegoak ondorengoak dira: Errioxa, Balentzia eta Nafarroa.

**Errioxaren** kasuan, hala ere, 2008ko eta 2013ko sarrera tributarioen artean apenas ezberdintasun ez dagoela esan beharra dago: zehazki, 2013koak 2008koak baino %2,20 baxuagoak dira.

**Balentiaren** kasuan ere, nahiz eta 2013koak zertxobait baxuagoak izan, ezberdintasuna ez da handia: zehazki, 2008koak baino %5,09 gutxiago dira.

**Nafarroan** aldiz, ezberdintasuna garrantzitsua da. Zehazki, 2013ko sarrera tributarioak balio absolutuan, 2008koak baino %18,13 baxuago dira. Hauxe da, beraz, oraintxe aipatu dudan bezala, biztanleko sarrera tributarioetan 2013 eta 2008aren artean ezberdintasunak egotearen arrazoia, biztanleria nahiko konstante mantendu baita.

Bestalde, Espainiako Autonomia Erkidegoetako 2013ko sarrera tributarioak balio absolutuan, batz bestea 2008koak baino % 8,03 handiagoak direla irteten da hainbat kalkuluren arabera. Badaude, ordea, hainbat autonomia erkidego batz besteko horretatik dezente urruntzen direnak:

**Extremaduraren** kasuan, 2013ko sarrera tributarioak balio absolutuan 2008koak baino %32,47 handiagoak dira.

**Gaztela eta Leonen** kasua ere nabarmentzekoa da, izan ere, 2013an izandako sarrera tributarioak 2008koak baino %24,71 gehiago dira.

Bi kasutan, horregatik, 36. taula eta 24. grafikoan ikus daitekeen bezala, 2013ko biztanleko sarrera tributarioak 2008koak baino altuagoak dira (1.613,97€-tatik 2.055,97€-tara igo dira Gaztela eta Leonen kasuan eta Extremaduraren kasuan, 1.334,32€-tik 1.764,83€-tara). Biztanleria bi autonomia erkidego horietan nahiko konstante mantendu dela adierazi behar da.

## 12.5 Euskadiren kasua

Aldagai honetan oso garbi ikusten da Eusko Jaurlaritzak finantza arloan Foru Aldundiekiko duen menpekotasuna. Horretarako, hasteko, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatutik abiatuz eginiko kalkuluak aztertuko ditut.

36. Taula eta 24. grafikoan ikusten den bezala, Euskadiko biztanleek zerga eta tasengatik ez dutela ia batere dirurik ordaintzen ondoriozta daiteke. Zehazki, 2008an biztanleko sarrera tributarioak 75,50€-takoak ziren eta 2013an 101,73€-tara igo da balio hau. Gorakada hau, hala ere, proportzioan oso handia dela aipatu beharra dago eta honen arrazoia, 37. taulan adierazten den bezala, 2013ko Euskadiko sarrera tributarioak balio absolutuan 2008koak baino %34,32 handiagoak izatea da.

\*Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien datuak batzen dituen aurrekontu likidatuarekin lortzen diren emaitzak, aldiz, jarraian dagoen taulan ikus daitekeen bezala, oso ezberdinak dira.

38. Taula. Sarrera tributarioak biztanleko (€) -Euskadi-						
URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EUSKADI	6.104,34	5.345,83	5.476,54	5.619,93	5.698,99	5.714,02

Iturria: Norberak egin EUSTATEko datuetan oinarrituta.

Honen arabera, Euskadiko biztanleek, zerga eta tasengatik, Espainiako beste Autonomia Erkidegoetako biztanleek baino askoz ere gehiago ordaintzen dutela ondorioztatzen da. Zehazki, 2008an biztanleko bildutako sarrera tributarioak 6.104,34€-takoak ziren; hurrengo urteetan hainbat gorabehera egon dira eta azkenik, 2013an, 5.714,02€-tako da datu hau. Aurreko kasuan justu alderantzizkoa gertatzen zen, hau da, 2013ko biztanleko sarrera tributarioak 2008koak baino handiagoak ziren. Hemen, aldiz, 2013koak zertxobait baxuagoak direla ikusten da, izan ere, Eusko



Jaurlaritza eta Foru Aldundien datuak batzen dituen aurrekontua oinarritzat hartuz, Euskadiko 2013ko sarrera tributarioak balio absolutuan 2008koak baino %6,69 baxuagoak dira.

Bi datu hain ezberdinak edukitzearen arrazoa, hasieran azaldu dudan bezala ondorengo da: Euskadin, zerga eta tasak biltzeaz hiru Foru Aldundiak arduratzen dira batik bat eta ez Eusko Jaurlaritza, horregatik irteten da lehenengo kasuan Euskadiko biztanleek ez dutela apenas zergarik ordaintzen. Hemen, beraz, argi ikusten da, Eusko Jaurlaritzaren finantza egoera Foru Aldundiek egiten dituzten ekarpenetara guztiz baldintzaturik dagoela.

### 13 SARRERA ETA GASTU TOTALEN BILAKAERA

Espainiako Autonomia Erkidegoen analisiarekin amaitzeko, 2008-2013 denboraldian autonomia erkidegoetako sarrera eta gastuek izandako bilakaera aztertu dut. Horretarako, oinarri gisa 2008ko sarrera eta gastuak hartu ditut eta %100eko balioa eman diet, horrela, ondorengo urteetan autonomia erkidego bakoitzean sarrera eta gastuek izan duten eboluzioa azter daiteke. Lehendabizi **sarrerak** aztertuko ditut eta gastuak ondoren.

39. Taula. Autonomia Erkidegoen sarreren hazkundera 2008-2013 epean (%)

URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
GAZTELA MANTXA	100,00%	115,30%	97,19%	79,67%	128,54%	77,46%
ANDALUZIA	100,00%	98,83%	96,87%	84,93%	90,90%	80,00%
EXTREMADURA	100,00%	101,81%	97,84%	89,33%	83,62%	80,16%
GAZTELA ETA LEON	100,00%	113,89%	101,86%	93,83%	105,78%	83,81%
GALIZIA	100,00%	103,17%	97,09%	82,04%	82,68%	84,28%
ARAGOI	100,00%	105,05%	107,11%	92,49%	100,74%	86,27%
NAFARROA	100,00%	100,82%	105,34%	96,47%	86,60%	89,15%
ASTURIAS	100,00%	110,16%	109,51%	98,09%	99,30%	91,47%
KANARIAK	100,00%	107,45%	109,23%	91,52%	95,58%	91,71%
CEUTA	100,00%	123,77%	105,81%	100,64%	127,36%	92,87%
KANTABRIA	100,00%	108,05%	100,68%	97,38%	108,28%	93,72%
BALENTZIA	100,00%	115,12%	113,45%	96,82%	129,31%	99,91%
MADRIL	100,00%	117,14%	104,83%	106,67%	121,50%	109,61%
MELILLA	100,00%	123,47%	123,34%	115,98%	110,79%	112,28%
EUSKADI	100,00%	102,89%	120,68%	111,95%	119,42%	112,52%
ERRIOXA	100,00%	101,98%	97,74%	99,80%	92,91%	115,41%
BALEARRAK	100,00%	118,12%	93,04%	75,22%	124,35%	115,95%
KATALUNIA	100,00%	111,56%	114,61%	118,31%	120,53%	118,36%
MURTZIA	100,00%	119,91%	103,76%	102,36%	129,82%	119,07%

Iturria: Norberak egin MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Oharra: Euskadiko datuak Eusko Jaurlaritzako aurrekontu likidatuan daude oinarrituta.

Taula horri erreparatuz, sarrerei dagokionez, krisi ekonomikoak ez duela eragin homogeen bat izan Espainiako Autonomia Erkidego guztietan garbi ikus daiteke. Sarrerak gehien murriztu diren autonomia erkidegoa Gaztela Mantxa izan da, 2013ko bertako sarrerak 2008an zeudena %77,46a dira. Andaluzian, Extremaduran, Gaztela eta Leonen, Galizian, Aragoi eta Nafarroan 2013an izandako sarrerak, autonomia erkidego horietan 2008an zeudena %80-90 bitartean kokatzen dira. Asturiasko,

Kanarietako, Ceutako, Kantabriako eta Balentziako 2013ko sarrerak 2008koen %90-%100a dira; eta bestalde, Madril, Melilla, Euskadi, Errioxa, Balearrak, Katalunia eta Murtzia aurkitzen dira, non autonomia erkidego horietako 2013ko sarrerak 2008koak baino altuagoak diren, zehazki, 2008koen %100-%120 bitartean kokatzen dira.

Euskadiren kasuan, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia batzen dituen aurrekontua hartzen bada kontuan, emaitzak antzekoak dira.

Taula horretan ikusten den bezala, 2008tik 2013ra bitartean sarrerak izan duten bilakaera ezberdina da autonomia erkidego bakoitzean, baina arau orokor bezala, Espainiako Autonomia Erkidego gehienetan sarreren beherakada 2010. urtetik aurrera hasten dela esan daiteke.

**Gastuak** aztertzean, jarraian erantsitako taularekin aurkitzen gara; kasu honetan ere, autonomia erkidego bakoitzeko 2008ko gastuak hartu ditut erreferentzia gisa, horiei %100eko balioa eman diet eta horren arabera ondorengo urteetan gastuak izan duten bilakaera aztertu dut.

40. Taula. Autonomia Erkidegoen gastuen hazkundea 2008-2013 epean (%)

URTE	2008	2009	2010	2011	2012	2013
GAZTELA MANTXA	100,00%	110,27%	98,26%	111,80%	104,03%	69,43%
EXTREMADURA	100,00%	102,15%	96,01%	95,50%	86,97%	75,06%
ANDALUZIA	100,00%	102,73%	93,64%	88,82%	94,99%	77,91%
GAZTELA ETA LEON	100,00%	105,82%	104,19%	89,30%	102,69%	81,29%
GALIZIA	100,00%	100,41%	94,53%	80,84%	81,48%	82,51%
NAFARROA	100,00%	99,32%	97,70%	90,15%	82,35%	83,58%
ARAGOI	100,00%	110,55%	104,61%	100,95%	95,38%	84,41%
ASTURIAS	100,00%	108,52%	103,59%	100,90%	98,80%	89,23%
KANTABRIA	100,00%	103,03%	98,88%	92,94%	100,77%	89,41%
KANARIAK	100,00%	108,82%	105,25%	92,62%	96,36%	91,00%
MURTZIA	100,00%	97,46%	98,54%	92,64%	106,12%	92,69%
CEUTA	100,00%	120,07%	111,06%	103,62%	123,16%	97,03%
BALEARRAK	100,00%	102,84%	101,20%	91,81%	117,90%	98,74%
BALENTZIA	100,00%	110,97%	108,17%	106,30%	121,63%	100,55%
EUSKADI	100,00%	110,66%	111,02%	109,36%	110,04%	102,14%
MADRIL	100,00%	109,07%	97,97%	98,42%	115,97%	102,87%
MELILLA	100,00%	116,48%	119,42%	113,97%	111,26%	108,35%
KATALUNIA	100,00%	113,94%	105,67%	114,42%	111,44%	110,67%
ERRIOXA	100,00%	101,22%	99,93%	94,96%	96,95%	116,68%

Iturria: Norberak egina MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Taula honi erreparatuz, logikoa den bezala, orokorrean, 2013an 2008an baino sarrera gutxiago dituzten autonomia erkidegoetan, gastuak ere 2013an gutxitu egin dituztela ikus daiteke. Bestalde, 2013. urtean 2008an baino sarrera gehiago izan dituzten autonomia erkidegoek, gastuak ere igo egin dituzte. Hau horrela izanik, 2013. urteko gastuak 2008koekin alderatzen badira, 2013. urtean gastuak gehien murriztu dituen Espainiako Autonomia Erkidegoa Gaztela Mantxa dela ikus daiteke, zehazki, 2013ko bertako gastuak 2008an zeudenan %69,43 dira. Extremadurako, Andaluziako, Gaztela eta Leoneko, Galiziako, Nafarroako, Aragoiko, Asturiasko eta Kantabriako 2013ko gastuak 2008an zituztenen %70-%90 artean kokatzen dira. Kanarietakoak, Murtziakoak, Ceutakoak eta Balearretakoak %90-100 bitartean eta azkenik, Balentzian, Euskadin, Madrilen, Katalunian eta Errioxan dituzten 2013ko gastuak

2008an zituzten gastuen %100-120 bitartekoak dira, 2013ko gastuak 2008koak baino altuagoak dira, alegia.

Taula horretako portzentajeei erreparatuz, 2008. urtearekin konparaketa eginez, gasturik txikiena, orokorrean, autonomia erkidego guztietan 2013. urtean izan dela ikus daiteke, eta hau, ziurrenik, jarraian aipatuko dudana 2/2012 Lege Organikoaren aplikazioaren ondorioz gertatu dela pentsatzen dut.

Azkenik, autonomia erkidego bakoitzean **sarrera eta gastuekin** zer gertatu den 2013. urtean 2008arekin alderatuz argiago ikusteko, ondorengo taula eranstu dut; taula honetan, aurrez egin dudana bezalaxe, autonomia erkidego bakoitzeko 2008ko sarrera eta gastuak hartu dituzte erreferentzia gisa, horiei %100eko balioa eman diet eta horrela, horiei dagokionez, 2013an zer gertatu den ikus daiteke (2008an izan ziren sarrera eta gastuen zein portzentaje izan diren 2013an, alegia).

41. Taula. Sarrera eta gastuen hazkundea 2008-2013 epean (%)

	SARRERAK 2013/2008	GASTUAK 2013/2008
GAZTELA MANTXA	77,46%	69,43%
ANDALUZIA	80,00%	77,91%
EXTREMADURA	80,16%	75,06%
GAZTELA ETA LEON	83,81%	81,29%
GALIZIA	84,28%	82,51%
ARAGOI	86,27%	84,41%
NAFARROA	89,15%	83,58%
ASTURIAS	91,47%	89,23%
KANARIAK	91,71%	91,00%
CEUTA	92,87%	97,03%
KANTABRIA	93,72%	89,41%
BALENTZIA	99,91%	100,55%
MADRIL	109,61%	102,87%
MELILLA	112,28%	108,35%
EUSKADI	112,52%	102,14%
ERRIOXA	115,41%	116,68%
BALEARRAK	115,95%	98,74%
KATALUNIA	118,36%	110,67%
MURTZIA	119,07%	92,69%

Iturria: Norberak egin MINHAPeko datuetan oinarrituta.

Oharra: Euskadiko datuak Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua daude oinarrituta.

Aurrez esan bezala, taula horretan ikusten da, orokorrean, 2013an 2008an baino sarrera gutxiago dituzten autonomia erkidegoetan, gastuak ere murriztu egin dituztela.

## 14 GOBERNUAK ONARTUTAKO LEGEA


Aztertzen ari naizen urte hauetan (2008-2013 denboraldian, alegia) mundu mailako ikaragarriko krisi ekonomiko batean murgildurik gaude eta honek eragin handia izan du Estatu Espainiarrean. Garai honetan, administrazioen zor publikoa ikaragarri igo da jarraian erantsi dudana taulan ikusten den bezala:

42. Taula. Administrazio publikoen zor publikoa BPGrekiko (milioi €)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
ZOR PUBLIKOA	439.875	568.650	649.628	744.001	890.553	966.295
BPG	1.116.207	1.079.034	1.080.913	1.075.147	1.055.158	1.049.181
ZOR PUBLIKOA/BPG	39,41%	52,70%	60,10%	69,20%	84,40%	92,10%

Iturria: Norberak egina Banco de España-ko datuetan oinarrituta.

26. Grafikoa. Administrazio publikoen zor publikoa BPGrekiko (milioi €)



Iturria: Norberak egina Banco de España-ko datuetan oinarrituta.

Taula eta grafiko horietan ikusten den bezala, 2008an administrazioen zor publikoa BPGren %39,41a zen eta 2013. urtearen amaieran, berriz, %92,10eraino igo da. Egoera hau dela eta, Gobernuak konstituzioa aldatu eta lege berri bat onartzeko beharra ikusi zuen, zehazki: "2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa" (*La Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera (EPSF)*). Laburbilduz, lege honen helburua, Administrazio Publikoen jasagarritasun finantzarioa bermatzea, Espainiako ekonomiaren egonkortasunean dagoen konfiantza indartzea eta Espainiak, aurrekontuen egonkortasunari dagokionez Europar Batasunarekin duen konpromisoa betetzea da. Aldaketarik nagusiena Administrazio Publikoentzat zorraren helburuak ezartzea izan zen, hau da, izan dezaketen gehienezko zorra finkatzea. Gobernuak, urteko lehenengo hiruhilekoan, Administrazio Publikoek hurrengo hiru ekitaldietan eduki dezaketen gehienezko zor publikoa finkatuko du eta honek, ezarritako aurrekontuen egonkortasunaren helburuekin koherentea izan beharko du. Behin hau finkaturik dagoela, Gobernuak, Autonomia Elkartentzat ere zor biziaren eta aurrekontuen egonkortasunaren helburuak finkatuko ditu (izan ditzaketen gehienezko zor eta gastuak, alegia).

## 15 ONDORIOAK

Estatu espainiarra oso estatu deszentralizatua da, 19 Autonomia Erkidegoz ostatua dago eta autonomia bakoitzeko 2008tik 2013ra bitarteko egoera finantzario ekonomikoa oso ezberdina izan da.

Hasteko, aztertutako aldagai finantzario ezberdinak adieraziz, Espainiako Autonomia Erkidego bakoitzaren 2013ko egoera laburbiltzen duen taula bat erantsi dut jarraian.

43. Taula. Adierazle finantzarioen 2013ko balioa autonomia erkidego bakoitzean

	Aur.Gordi/ Sar.Arrunt.	Aur.Garbia/ Sar.Arrunt.	Legezko zorp.-maila	Zorpetze- muga	Zor bizia/ Sar.Arrunt.	Funtz.Gast/ Sar.Arrunt.	Inber.Garb/ Biztanleria	Inbertsio maila	Sarr.Tribut./ Biztanleria
ANDALUZIA	-3,44%	-20,82%	17,38%	0,00%	126,49%	103,44%	331,57 €	10,64%	1.571,76 €
ARAGOI	4,29%	-9,43%	13,72%	0,00%	686,87%	95,71%	450,25 €	13,34%	2.193,34 €
ASTURIAS	4,53%	-6,20%	10,73%	0,00%	97,07%	95,47%	341,93 €	9,76%	2.232,18 €
BALEARRAK	9,21%	-17,48%	26,69%	0,00%	254,74%	90,79%	375,68 €	11,66%	2.413,20 €
BALENTZIA	-6,76%	-19,43%	12,68%	0,00%	308,53%	106,76%	330,07 €	11,52%	1.777,34 €
CEUTA	15,87%	4,61%	11,26%	29,03%	111,19%	84,13%	172,34 €	6,43%	1.638,67 €
ERRIOXA	2,13%	-43,90%	46,03%	0,00%	119,86%	97,87%	353,68 €	7,50%	1.942,14 €
EUSKADI 1	1,65%	-3,54%	5,19%	0,00%	101,79%	98,35%	473,24 €	10,78%	101,73 €
EUSKADI 2	37,38%	34,08%	3,30%	91,16%	64,81%	62,62%	471,37 €	10,74%	5.714,02 €
EXTREMADURA	0,60%	-8,70%	9,31%	0,00%	80,85%	99,40%	374,31 €	10,38%	1.764,83 €
GALIZIA	4,45%	-13,43%	17,89%	0,00%	124,04%	95,55%	453,89 €	12,84%	1.829,01 €
GAZTELA ETA LEON	5,93%	-4,67%	10,60%	0,00%	125,70%	94,07%	429,81 €	13,01%	2.055,97 €
GAZTELA MANTXA	-5,47%	-20,63%	15,15%	0,00%	231,70%	105,47%	187,85 €	6,18%	1.679,26 €
KANARIAK	-0,60%	-10,87%	10,27%	0,00%	98,62%	100,60%	333,88 €	10,63%	1.256,18 €
KANTABRIA	7,94%	-0,94%	8,88%	0,00%	116,00%	92,06%	390,66 €	10,80%	2.243,10 €
KATALUNIA	-2,49%	-57,93%	55,44%	0,00%	300,22%	102,49%	378,36 €	8,22%	2.322,02 €
MADRIL	3,02%	-17,21%	20,23%	0,00%	149,74%	96,98%	211,06 €	7,12%	2.484,52 €
MELILLA	7,80%	0,30%	7,50%	3,81%	52,78%	92,20%	268,63 €	9,96%	1.175,44 €
MURTZIA	-3,78%	-24,66%	20,88%	0,00%	166,37%	103,78%	162,08 €	5,16%	1.673,35 €
NAFARROA	4,26%	-5,31%	9,57%	0,00%	99,86%	95,74%	419,10 €	7,25%	4.833,14 €
BATEZBESTEKOA	2,59%	-14,75%	17,34%	1,73%	176,44%	97,41%	338,86 €	9,64%	1.957,22 €

Iturria: Norberak egina Banco de España, EUSTAT, INE eta MINHApeko datuetan oinarrituta.

#### OHARRAK:

Autonomia erkidegoak alfabetoaren arabera daude ordenaturik.

EUSKADI 1: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu likidatua dago oinarrituta

EUSKADI 2: Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundien datuak batzen dituen aurrekontu likidatua dago oinarrituta.

■ Kolore berdez, adierazle bakoitzaren arabera hoberen dagoen autonomia erkidegoa dago adierazita.

■ Kolore morez, adierazle bakoitzaren arabera okerren dagoen autonomia erkidegoa dago adierazita.

Zorpetze-mugan ez dago okerren dagoen autonomia erkidegorik adierazita, okerren egoteak %0-ko balioa izatea esan nahi baitu eta hainbat autonomia erkidego baitaude egoera horretan.

Euskadi kasu berezi bat denez, taulan hoberen eta okerren dagoen autonomia erkidegoak adierazterako orduan ez da kontutan eduki.

Aurrez hainbat adierazle ezberdin aztertu ditut eta orain, ondorio hauetan, niri adierazgarrienak iruditu zaizkidanak azalduko ditut.

